

GAY ETA LESBIANEN HARROTASUN

EGUNA: Afrika, homofobian, eta, Europa, homofobiatik askatu ezinda > 4-9

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Aldaketaren lehentasunak eta lehengaiak RAMON SOLA > 11

2015eko ekainaren 27a | IX. urtea • 422. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



BIDEAN PAREKIDE BIHURTUAK

ANDOINGO AZERI-DANTZA PAREKIDEA DA EGUN, NAHIZ ETA URTE ASKOAN GIZONEZKOEK BAKARRIK DANTZATU; LEGAZPIKO EZPATA-DANTZAK ATEAK IREKI DIZKIE EMAKUMEEI; DONOSTIAKO DANBORRADA MISTOA DA ASPALDITIK ETA, ZUBIETAN, EMAKUMEAK ERE BADIRA JOALDUN. ADIBIDE BATZUK BAINO EZ DIRA. > 12 Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

Elkarrizketa: Aimar Rubio,
ikerlaria eta AI-ko kidea 04

Familia homoparentalen haurrak
ez datoz Parisetik 07

Bidean parekide bihurtu diren
betiko ohiturak 12

Erraldoiak eta buruhandiak, bizia
hartzen duten objektuak 17

GKO Gallery: euskal artista eta
diseinatzaileak babesten 22

Ikusmira: Egin salto, dantza eta
irri, baina suarekin argi ibili 26

In fraganti: Ibon Larrinaga 28

Behatxulotik 31



SINADURAK:

03 **Iratxe Urizar:** #NiUnaMenos

10 **Unai Fernandez de Bretoño:**
Estalkiaz

11 **Ramon Sola:** Aldaketaren
lehentasunak eta lehengaiak

20 **Gorka Zozia:** Harro

21 **Laura Mintegi:** Gazte
parekidezale eta «sexyak»

25 **Amaia Ballesteros**

27 **Maidier Iantzi:** Usain hori,
udaren iragarlea

27 **Xabier Mikel Errekondo:**
Jendarte inklusiboa; #kmk15

30 **Iratxe Esnaola:** Gaztetxoak,
smartphoneak eta arauak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAK) DIRUZ LAGUNDUA



Gipuzkoa
BERRIA

{ datorrena } Iratxe Urizar

#NiUnaMenos

Traola hau abiadura bizian zabaldu zen hila-
ren hasieran, ez bakarrik Ameriketara zehar,
baita gure artean ere. Argentinan aurretik
inoiz eginiko emakumeen aurkako indarke-
ria salatzeke manifestaldi jendetsuenaren
deialdia zen. Gutako askok, gainera, lelo ho-
rri lagunduta zihoan panpinatxo baten irudia jaso ge-
nuen WhatsApp eta sare sozialen bidez, gure profileko
argazki lez ezarria izateko. Milaka eta milaka izan ziren
Argentinako hainbat hiritan bildu zirenak (protestak
Uruguaira ere zabaldu ziren). Aldarrikapen zentral eta-
ko bat 26.485 Legearen arautze osoa eskatzea izan zen, he-
rrialdean gertatzen ari den feminizazioa gelditzeko edo,
sikiera, helburu horretan laguntzeko. Estatu espainola-
ren antzeko biztanle kopurua duen Argentinan, 277 izan
ziren 2014. urtean matxismoagatik erailak. Gizarte espa-
rru guztietako ordezkariak bildu ziren bertan, eta bultzat-
zaileen artean, hezkuntza
arloko profesionalak ere ba-
ziren, arlo horrek arazo poto-
lo honekin bukatzeke duen
garrantzia azpimarratuz. Oso
salaketa interesgarria
bertan luzatu zena: ugari
izan ziren justiziak jasotako
kritikak, baina ez ziren txi-
kiak izan komunikabideen
aurka bota zirenak, haien pa-
pera gogor salatuz.

Manifestaldi masibo ho-
rien irudi ikusgarrietara hur-
biltzeak, Rita Segato argenti-
nar antropologoaren iritzia
ezagutzea ahalbidetu zidan. Haren analisia Amerikan
zentratzen bada ere, hainbat ondorio guztiz aplikaga-
rriak dira gure errealitate hurbil, europar-okzidental-
zentrista honetara. Ezin da, haren esanetan, erailketa ho-
rien sustraia egitura kapitalistatik kanpo aurkitu; izan
ere, botere eskemak erreproduzitu egiten dira, eta ez ho-
ri bakarrik, egestura honek elkarrenganako dugun en-
patiarekin bukatzea behar izango du, krudelkeriaren pe-
dagogia bultzatu eta ankerkeriaren ikuskizunera guztiok
ohituz. Egunero gertatzen dira erailketak, egunero deta-
ile zantarrak. Bortizkeria hori «errutinatzatu» egin da.

Egia da ez direla inoiz egon gaur egun dauden babes
politika publikoak, legeak, diskurtso instituzionalak.
Handik ikusita, hori gauzak egiteko modu erabat europar-
ra dela deritzo, eta hala izan edo ez, argi dago ezin die-
gula emandako aurrerapausoei uko egin. Baina ezin gai-

tezke ikuspegi instituzionalista batean edo instituziona-
listegia den batean soilik geratu. Soluzioak ez datoz (ez
soilik, bederen) parlamentu edo adierazpen solemneeta-
tik. Kanean, ahoz aho, gorputzez gorputz, hurbiltasunetik
egin behar da lan, konfiantzak sortuz eta saretuz. Mugi-
mendu feministak esperientzia luzea du horretan, eta
ahaztu ezineko hanka da; egun hauetan, izan ere, Euskal
Herriko Emakumeon Mundu Martxaren Eskutik hainbat
hitzaldi interesgarri ditugu. Eskala handiko kanpainen
garrantzia handia dute; gizarte babesa islatu eta errealita-
te bati bisibilizazioa aitortzen diote, ezkutuan egon den
errealitate gordina, gainera. Baina, kanpaina masibo ho-
rien ezaugarrietako bat ere bada egunerokotasunean,
emakumeen gorputza saltzeko arazorik ez duten komu-
nikabide horiek beraiek, ez dutela kontraesanik ikusten
kanpaina horiek babesteko eta haiekin bat egiteko.

Egia da ez dela inoiz egon egungo babes
politika publikorik, baina ezin gera
gaitezke ikuspegi instituzional batean.
Soluzioak ez datoz, ez soilik, parlamentu
edo adierazpen solemneetatik

Bihar, ekainak 28, munduko hainbat hiritako kaleak
kolorez beteko dira, bakoitzak nahi duen sexualitatea
izateko eskubidea duela jai giroan aldarrikatzeko. Ez zen
jai giroan eman ospakizun horren sustraia; izan ere, ho-
mosexualen aurkako jazarpena jasangaitza bihurtu eta
hirurogeiko hamarkadaren bukaeran istilu eta manifest-
aldi ugari izan ziren AEBetan. Lan handia egin da ordu-
tik, eta egiten jarraitu beharko da. Aurreko hausnarketari
lotuz, aldarrikapenez betetako borroka da, jai giroan egi-
ten dena, baina kritikoa, oso kritikoa. Aldarrikatzeko egu-
na, eta irabazitakoa ospatzekoa, baina ez merkantilismo-
rako gunea edo autokonplazentzia diskurtsoen tokia.
Ezin amaitu, ordea, faltan botako dugun gizon solidario
bat aipatu gabe: Periko, zauden tokian zaudela, ziur gara
adi-adi begira egongo zarela zure begi biziarekin, eta beti
daramazun kamerarekin detaile guztiak jasotzen. •

«Homosexualitatea birkriminalizatzen ari da munduan»

Gezurra badirudi ere, gaur egun maitasunak delitu izaten jarraitzen du munduko hainbat lekutan, bai behintzat maitasun hori sexu bereko pertsonen artekoa denean. Zigorak nahieran aurki ditzakegu mundu zabalean: Ugandan, adibidez, heriotza zigorra ezartzen diete «homosexualitatea praktikatzen» dutenei; Iranen, latigoarekin jotzen dituzte; Aljerian, bizi osorako kartzelan sartzen dituzte. Baina homosexual izatea delitu ez den herrialdeetan ere, kolektibo horrek pairatzen duen jazarpena eguneroko ogia da eta, zoritxarrez, ez bakarrik Afrikan. Horixe ohartarazi du homosexualen eskubideen alde Amnistia Internacional erakundeak lan egiten duen Aimar Rubiok (Getxo, 1984).

Zientzia Politikoetan lizentziaduna, Nazioarteko Ikasketetan masterra egina dauka Rubiok, eta Afrikako Homofobiaren inguruan osatu du doktoretza, “Sexual orientation, violence and human rights in Africa: South African case study” izenburuko tesia defendatuz.

Afrikako homofobia aztertu duzu. Zergatik homofobia eta zergatik Afrikan?

Zientzia Politikoak ikasten hasi nintzenetik nire lanak lotura handia izan du Afrikako gaiekin, batez ere giza eskubideen arloan. Afrikako kultura, hizkuntza eta ohitura anitzek nire jakinmina piztu izan dute betidanik, eta Afrikatik datozen albiste eta gertaerak interes bereziarekin jarraitu izan ditut beti. Bestalde, ni neu ere homosexuala naiz eta txikia nintzenetik, bai ikastolan eta bai kalean, eraso homofoboak jasan ditut, beste lesbiana edo gay askok bezala. Horrela ba, orain dela bost urte, Afrikatik zetozen gay eta lesbia-

nen giza eskubideen inguruko albiste lazgarriek nire arreta piztu zuten, eta gai horren inguruan lan egiteko gogoia piztu zidaten.

Zure lana burutu ahal izateko Hegoafrikara joan zinen. Non mugitu zinen eta zer egin zenuen?

Hiru hilabete eman nituen Johannesburgon, eta batez ere el-

karrizketak egiten eta ‘Gay and Lesbian Memory in Action’ erakundearen artxiboak ikertzen aritu nintzen. Erakunde horretan Afrikako LGBTI (Lesbiana, Gay, Transexual, Bisexual eta Intersexual) historiari buruzko milaka dokumentu dauzkate, eta izugarria da homosexualitatearen memoria historikoaren alde egiten duten lana. Pretoria eta Lurmutur Hirira ere joan

nintzen. Bertan, LGBTI aktibista, ikertzaile, mediku, kazetari eta homosexualen eskubideak defendatzen dituzten apaiz kristau zein musulmanei egin nizkien elkarrizketak, homofobiaren jatorriak eta ondorioak aztertzeke.

Kontraste ugariko herrialdea aurkitu omen zenuen. Zer zentzutan?

Bai, Hegoafrika kontraste izugarriko herrialdea da. Desmond Tutuk eta Nelson Mandelak ‘Ortzadar Aberria’ (Rainbow Nation) deitu zioten Hegoafrikari, herrialdeak duen biztanleriaren aniztasunagatik. Zoritxarrez, Apartheid garaiko desberdintasun sozio-ekonomikoak ez dira gaingitu oraindik, eta beltz edo mestizo askok pobrezia jasaten jarraitzen dute. Kontraste handia dago biztanleria zuriaren eta zuriak ez diren pertsonen artean. Hegoafrikako biztanleen %10 inguru soilik dira zuriak, baina beraiek dira herrialdeko aberastasunaren zati handienaren jabe. Baina, gauza guztien gainetik, musikaren, kolorearen, iraultzaren eta borrokaren herrialdea da Hegoafrika.

Kontrasteak homosexualitatearen esparrura ere hedatzen omen dira...

Bai. Apartheid garaian homosexualitatea kriminalizatuta zegoen, baina trantsizio garaian (1994tik aurrera) Hegoafrikak munduko konstituzio aurrerakoiaren onartu zuen. Gaur egun, sexu bereko pertsonen arteko ezkontzak eta adopzioak legalak diren Afrikako herrialde bakarra da. Horrez gain, konstituzionalki debekatuta dago orientazio sexual eta nortasun identitatearen inguruan inor diskriminatzeko. Zentzu horretan, munduko legedi aurrerakoienetakoa da Hegoafrikakoa. Errealitatea, ordea, kontraesankorra da, eta homofobia izugarria da kalean; zoritxarrez, oso arruntak dira irainak, jipoiak, diskriminazioa, bazterketa soziala, bortxaketak, baita hilketak ere.

Hegoafrikatik kanpo, Afrikako beste herrialde askotan homo-

sexualek bizi duten egoera benetan kezagarria da. Non ematen dira kasurik larrienak? Kontuan izan behar da homofobia gaitz global bat dela eta mundu osoan ematen dela, eguneroko. Gainera, diskurtso eta praktika homofoboak guzti-tietan gertatzen direnez –bai alor publikoan, bai pribatuan–, kasurik larrienak zeintzuk diren zehaztea zaila egiten da. Bestalde, kontutan eduki behar dugu Afrika kontinente erraldoia dela, oso handia eta oso anitza, nahiz eta askotan entitate homogeneo bat bezala hartzen dugun. Zaila da osotasun hori kontuan izanda hitz egitea; baina ez, datuek ez diote gezurrik: gaur egun, Afrikako 54 herrialdeetatik 38k era batera edo bestera kriminalizatzen dute homosexualitatea, eta horietako lautan legalki heriotza zigorra aplikatzen zaie homosexualiei: Mauritania, Nigeria, Somalia eta Sudanen, hain zuzen. Malin, adibidez, ez dago inolako araudirik homosexualitatearen eta sexu aniztasunaren kontra, baina biolentzia eta hilketak eguneroko ogia dira. Ugandan, Nigerian, Ghanan, Senegalen, Kamerunen edo Zimbawen ere, bai sozialki eta bai politikoki, homofobia eta matxismoa oso hedatuta daude gizarteetan.

XXI. mendean, zergatik jarraitzen du gobernu askok homosexualak hain bortizki zigortzen? Zeintzuk dira arrazoi nagusiak?

Zalantzarik gabe, erlijioak eta fundamentalismo itsuek zerikusia daukate horretan. Egin diren ikerketen arabera, Afrikako homofobia Estatuaren eta agente erlijiosoen arteko dialektikan babesten eta mantentzen da. Homosexualitatea kriminalizatzen duten diskurtso erlijioso eta fundamentalistek gutxiengo sexualen aurkako erasoak legitimatzen dituzte. Erlijioaren eragina eta garrantzia handia da Afrikan, jarraitzaile asko dituelako eta azkar hedatzen delako kontinente guztian. Ugandan, esaterako, agerikoa da eliza ebanjelikoa eta zenbait talde fundamentalista gobernuaren

AIMAR RUBIO

IKERLARIA ETA AMINISTIA INTERNACIONAL-EKO KIDEA

Afrikako homofobiari buruz osatu du bere doktorego tesia Aimar Rubiok. Hegoafrikan igaro dituen hiru hilabeteetan, bertatik bertara ezagutu ahal izan du kontinente beltzean homosexualek pairatzen duten egoera

Julene LARRAÑAGA

agendan sartu direla, eta Kamerunen ere berdina gertatu da, kasu horretan, eliza katolikoarekin.

Munduko herrialde gehienetan aurrerapenak eman dira: sexu bereko bikoteen ezkontzak onartu dira, adopzioak ahalbidetu dira... Kontrako norabidea hartzeaz gain, jarrerak gogortu dituzte herrialde askok. Zergatik?

Sexu askapenaren gaiak oso urduuri jarri ditu hainbat herrialde. Errusia, Uganda edo Iranek, esaterako, beraien soberania mehatxatuta ikusi dute mendealdetik esan dietenean inor ez diskriminatzeko lege aurrerakoiak bultzatu behar dituztela. Zenbait herrialde erasota sentitu dira, nolabait esateko. Nazio Batuen Erakundeko eztabaidetan oso argi ikusten da bi bando osatu direla auzi horren inguruan: alde batetik, mendealdekak LGTBI eskubideak defendatzen ditu; eta, bestetik, sozioekonomikoki ahulagoak diren herrialdeek homosexualitatea kriminalizatzeko beraien eskubidea aldarrikatzen dute. Mendealdean ematen ari diren aurrerapausoak direla-eta, erreakzio moduan gero eta herrialde gehiago ari dira legediak aldatzen eta gogortzen, kartzela zigorrak edo heriotza zigorrak areagotuz, adibidez.

Hegoafrikako homosexualekin esperientziak partekatu dituzu. Nolakoak da beraien egunerokoa?

Homofobia eta matxismoa gogor ematen den gunetan, ezkutan bizi dute gehienek beraien sexualitatea. 'Bizitza heterosexualak' bizi dituzte homosexual askok Afrikan, ezkondu eta seme-alabak izaten dituzte. Beraien nahi sexualak sekretuan praktikatzeko dituzte, isilpeko toki klandestinoetan, inolako babesik gabe, eta gaixotasun sexualen mehatxuarekin. Datuen arabera, azken hamarkadan homosexualitatea birkriminalizatu duten Afrikako herrialdeetan Giza Immunoeskasiaren Birusa izugarri igo da, homofobiak ezkutuko eta babesik gabeko topa-



Argazkiak: Aritz LOIOLA | ARGAZKI PRESS

«Sexu askapenaren gaiak urduuri jarri ditu hainbat herrialde. Errusia, Uganda edo Iranek, esaterako, beraien soberania mehatxatuta ikusi dute mendealdetik esan dietenean inor ez diskriminatzeko lege aurrerakoiak bultzatu behar dituztela»



keta sexualak bultzatzen baititu. Aldiz, beraien sexualitatea publikoki adierazten dutenek giza eskubide urraketa ugari jasaten dute eta beraien bizitza arriskuan egon ohi da.

Gizonezkoen inguruan maiz hitz egiten da. Zer gertatzen da lesbiana afrikarren kasuan?

Historikoki, gizonen arteko erlazioak kriminalizatu izan dira soilik. Patriarkatuarentzat emakumeak ugalketa unitateak izan dira eta emakumeen sexualitateari ez dio inork inolako arretarik jarri. Azkenengo hamarkada honetan, ordea, gero eta herrialde gehiago ari dira beren legediak aldatzen, emakumeen plazera ere kontrolatu nahi dutelako orain. Zentzu horretan, Afrikan gertatzen ari den birkriminalizazioa emakume lesbanei begira ematen da batez ere. Hegoafrikan emakume askok pairatzen dute diskriminazioa, batetik, lesbiana izateagatik, baina, bestetik, baita emakume izateagatik, beltza izateagatik, txiroa izateagatik eta gaixotasunen bat izateagatik ere. Diskri-

minazio askok bat egiten dute; izan ere, homofobia inoiz ez doa bakarrik, eskutik doa bestelako jarrera bortitz batzuekin. Hegoafrikan emakumeen aurkako indarkeria hedatuta dago, eta matxismoak inpaktu handia dauka emakume guztien bizitzetan, batez ere maila ekonomiko baxuenekoen artean. Testuinguru horretan, lesbien aurkako biolentzia ugaritu egin da.

Bisexualen edo transexualen kasuan, nola dago egoera?

Pertsona transgeneroek eta transexualek giza eskubideen urraketa bereziki larriak pairatzen dituzte mundu osoan. Bazterketa sozial izugarria bizi dute, isolatuak izaten dira alor publiko eta pribatuetan, eta askorentzat, prostituzioa izaten da aterabide bakarra. Hala ere, Afrikan gero eta gehiago dira transgenero eta transexualen alde lanean ari diren aktibistak, eta solidaritate sare garrantzitsuak eratzen ari dira azken urte haueetan. Egia da, hala ere, hainbat lege aldatu beharko liratekeela pertsona horiek egunerokoan

beharrezko dituzten agirietan izena eta sexua aldatu ahal izateko.

Egoera larrienaren aurrean babes internazionala edo kanpoko esku-hartzea beharrezkoa direla uste duzu?

Babes internazionala eskatzea, erbesteratzea edo asiloa lortzea, irtenbide posibleak izan daitezke pertsona askorentzat. Hala ere, oso gutxi lortzen dute. Homosexualitatea legala den herrialdeetan, mendealdean batez ere, ez baita erraza onartua izatea, baliabide ekonomiko minimo batzuk behar dira horretarako, eta normalean Europan edota Ipar Amerikan oztopo asko jartzen zaizkie asilo eskatzailerei. Triste da mendealdeko hainbat gobernu publikoki homofobia salatzen entzun eta gero, benetan erbesteratzeko aukerarik eskaintzen ez dutela ikustea. Nazioarteko erakundek seriotasun handiagorekin hartu beharko lukete gai hau eta halako egoerak bizi dituzten pertsonak lagundu beharko litzukete hitzarmen internazio-


nalak bideratuz. Gainera, homofobiaz gain, arrazismoa, xenofobia, islamofobia, matxismoa eta serofobia ere jasan behar dituzte askok; izan ere, esan bezala, homofobia ez dator inoiz bakarrik. Homofobiarekin amaitzeko sexu indarkeriarekin eta matxismoarekin ere amaitu behar da, eta horretarako baliabide politiko, legal eta material gehiago jarri behar dira martxan, bai Afrikan, baita mundu osoan ere.

Aktibismoan aritzen direnek zer kontaktu dizute?

Guk uste baino aktibista gehiago dago Afrikan; batzuk homosexualak dira, eta diren bezala agertzen dira, baina, gehienek, arrisku asko hartzen dute beren gain. Egoera zaila bizi dute, baina albiste edo gertaera lazgarri batetik beti atera daiteke zerbait positiboa. Esparru honetan borrokan dabilzan milaka aktibista anonimoen esperientzia guztiz aberasgarria da. Gaur egun, jende asko dabil borrokan, maitasuna delitu izan ez dadin aldarrikatuz. Era berean, azpimarratu behar da badaudela heterosexualak diren aktibistak ere LGTBI pertsonen alde lanean dabiltzanak: Alice Knom abokatua, Kamerunen, baita apaiz batzuk ere, Christopher Senyonjo Ugandan, edo Desmond Tutu bera, Hegoafrikan.

Europar, oro har, nola ikusten duzu homosexualitatea gaur egun?

Azken hamarkadetan aurrera egin da, baina azken urteotan atzerapausoak ere eman dira, eta, batez ere, Europa ekialdeko herrialde askotan nabarmen egin du gora homofobiak. Alde batetik, mendealdean egin diren aurrerapausoak direla-eta, erreakzio negatiboa eman da ekialdeko herrialde askotan: Serbian, Errumanian, Azerbaijanen, Errusian... Bestalde, eta Errusian batez ere, azken urteotan eliza ortodoxoaren aldarrikapenak gobernuaren agendan sartu dira, eta horrek politika homofoboaren berpiztea ekarri du. Europa ekialdean eliza ortodoxoak izan duen gorakadak



eta azken urteotako krisi ekonomikoak diskurtso homofobo eta xenofoboaren agerpena eragin du, batez ere alderdi kontserbadore eta ultra-nazionalisten inguruan.

Hemen ere egoera ez da ideal. Bidearen zati handi bat eginda zegoela uste genuen baina, GEHITUk emandako datuen arabera, azken urteotako ‘gorroto delituen’ gehiengoa orientazio sexualari lotuta egon da. Legeak aurrera bai, baina gizarteari uste baino gehiago kostatzen ari zaio abiadura berean joatea? Bilbo edo Donostiko Sexu Askapenaren eguneko manifestazio-

«Guk uste baino aktibista gehiago dago Afrikan; batzuk homosexualak dira, diren bezala agertzen dira, baina gehienek arrisku asko hartzen dute beren gain»

ra bagoaz, irudituko zaigu ezer gutxi dagoela borrokatzeko. Gauza asko lortu dira, baina bide asko dago egiteke. Datuek ez diote gezurrik: gorroto delituen barruan asko dira sexualitatearekin eta sexu askatasunarekin zerikusia dutenak: irainak, diskriminazioa, erasoak... Tamalez, homofobia gaitz global bat da, eta Euskal Herrian ere existitzen da. Sexu askapenarena prozesu bat da, luzea eta astiro gauzatzen ari dena. Zalantzarik ez dago legeak beharrezkoak direla eskubideak gauzatzeko, baina gizartea aldatzeko lege batzuk baino zerbait gehiago behar da. Legeekin batera, kanpainak eta politikak bideratu

behar dira hainbat pentsaera aldatzeko eta honen inguruan pedagogia egiteko.

Gauza bat behintzat aldatu da: garai batean ez bezala, gobernuen agenda politikoan sartu da gaia. Zein neurri hartu beharko lirateke egoera hobetzeko?

Hezkuntza funtsezkoa da aniztasun afektibo eta sexualaren alde pentsamoldea irekitzeko. Hezkuntza da kontzientzia sortzeko giltza, gorrotoa errespetu bihurtzeko era bakarra. Eskolan egiten diren programez aparte, beharrezkoa da beste politika batzuk bideratzea homofobia deuseztatzeko. Adibidez, eta Euskal Herrian Afrikako hainbat etorkin daudela kontutan izanda, beraiei ere zuzendu behar zaizkie homofobia eta jarra matxistak detektatu eta deusezteko politikak.

Bestalde, homofobiak eta transfobiak bere horretan iraungo dute heteroarauaren eta patriarkatuaren diskurtsoak baztertzen ez diren bitartean. Homofobiaren kontra baldin bagaude, beste biolentzia mota guztien kontra ere egon behar dugu; homofobiarekin amaitzeko sexu indarkeria, arrazismoa, islamofobia eta matxismoarekin ere bukatu behar dugu. Ezin da ulertu, nire ustez, sexu askapena aldarrikatzen duen pertsona bat arrazista eta xenofobia izatea aldi berean. Zentzu horretan, LGTBI mugimenduak ezin du bakarrik bizi, eta beharrezkoa du beste mugimendu batzuekin aliantzak jostea, feminismoarekin adibidez, mundu hobeago baten bila.

Azken finean, uste dut bada goela premia bat oso nabaria gizaratean: aniztasuna zerbait positibo bezala ulertzeko beharra. Era berean, ohartu behar gara batzuek helarazi nahi duten gorrotoak guztioi egiten digula kalte; ondokoa diskriminatza, gutxiestera eta bizitza duin bat izateko aukerak mugatzera eramaten gaitu gorrotoak. Pertsona orok giza eskubideak bermatuta izan behar ditu, horretaz ohartzea eta ondokoa errespetatzea baino ez da kontua.

{ analisia } Unai Goti

Familia homoparentalen haurrak ez datoz Parisetik

Europar Batasuneko Parlamentuak berriki plazaratu du LGTBI kolektiboaren egoeraren inguruko azken txostena. Sarreran azaltzen du giza eskubideen babesak Batasunean duen garrantzia, bazterketa ekidin beharra edo sexu joerarengatiko diskriminazioaren zilegitasunik eza. Segidan, onartzen du gaur egun oraindik LGTBI kolektiboaren eskubideak urratzen direla Europar Batasunean. Bazterkeriak eragin eta ondorio ugari izan arren, hiru kasu nabarmentzen ditu txostenak: sexu berekoen ezkontzen ukapena, haurrak adoptatzeko eskubiderik eza, eta lagundutako ugalketa teknikak erabiltzeko oztopoak. Hain zuzen ere, hala-ko oztopoen gaineratik datoz hegan zikoinak, AEBetatik eskubideen Europan ostadarrak marraztera. Lehen oztopoak, ordea, ezer gutxi du ikusteko zikoinekin.

EZIN EZKONDU EUROPAN

Badirudi mendeak pasatu direla legeak harreman homosexualak zigortzen zituen garaitik. Queer identitateak eta feminismoak aurrera egin duten gizarte moderno honetan, gizon zein emakume homosexuala izatea ez omen da arazo.

Zoritzarrez, hain urruti ikusten ditugun garai ilun horiek duela hamar urte gairitu ziren Espainian legearen ikuspuntutik, eta duela bi Frantzia. Nola ahaztu Manif pour Tous taldeak izandako oihartzuna, eta *liberté, égalité, fraternité*-aren herrialdean sexu bereko bikoteen ezkontzen eta familia homoparentalen aurkako manifestazio jendetsuak.

28 estatuko Eskubideen Europan oraindik zazpi estatutako konstituzioek ezkontza gizonaren eta emakumearen arteko loturara mugatzen dute. Zazpi horiez gain, beste hamar dira sexu bereko bikoteen arteko lotura ezkontza moduan onartzen ez dutenak. Azken talde horretan, gutxi batzuek erdibideko irtenbide bat bilatu

Mitoak dio haurrak Parisetik datozela, izaratxoan bilduta, zikoinen mokotik zintzilik. Tamalez, sexu bereko bikoteen haurrak ez datoz Parisetik, ezta Madrildik ere; gehienak Los Angelesetik datoz, oztopoz beteriko bide luzea egin ondoren.



Europar oraindik homofobia arnasten da, bai legeetan, bai jarreretan. GAUR8

dute, bere garaian Espainiak egin zuen moduan, sexu bereko bikoteentzako izatezko bikoteena bezalako formula juridiko alternatiboak bilatuz, baina, betiere, ezkontza emakume eta gizonaren arteko loturari murriztuz. Baten batek kontuak egin baditu, ohartuko zen bikote homosexualen ezkontzak lurraldeen gutxiengo batean onartzen direla bakarrik. Beraz, estatistikan erabili ohi den hiztegiari helduta, Europar Batasunean moda sexu bereko bikoteak baztertzea da.

IRLANDA: GIZA ESKUBIDEEN BOZKETA

Aipatutako erdibideko egoera hori da Irlandako Errepublikan joan den maiatzaren 25era arte indarrean izan dena. Duela hamar urtera arte Espainian bezala, sexu bereko bikoteak ezin ziren ezkondu, bai ordea izatezko bikote moduan eratu. Badirudi Irlandako konstituzioaren arabera ezkontzak ugaltzea duela helburu eta, horri helduta, naturak emandako bideak baliatuz ugal daitezkeenak baino ezin litezkeela ezkondu. Argi dago definizioa zaharkituta dagoela, gizon eta emakume banaz osatutako bikoteak potentzialki ugaltzeko gaitasuna izan arren, askok ez baitute gaitasun erreal hori eta lagundutako ugalketa tekniketara jo behar dute. Beste batzuek gaitasuna badute, baina ez dute guraso izan nahi. Edozein kasutan, horiei guztiei ez zaie ugalkortasun gaitasunaren eta nahiaren probarik egiten, eta ezkontzeko atea zabal-zabalik izaten dute.

Gainera, eztabaidaren muina harago doa. Izan ere, bikote heterosexualei dagokienez, ugalkortasun arazoak dituzten kasuetan haurdunaldiaren subrogazioa ere aukera da Irlandar Errepublikan. Hau da, bikoteko emakumearen umetokia dena delako arrazoiengatik kaltetuta balego, bikote horren haurrak beste emakume baten umetokian hazteko aukera izango luke, bai euren material genetikoak, bai emailena erabilita. Hau da, bikotez kanpoko emakume batek haurra bere



sabelean hazteko gaitasuna eskain liezaioke bikote ezkonduari, haiek euren kabuz gauzatzeko gai ez diren prozesu hori aurrera eramateko.

Subrogazioa ez da eztabaidagai handia izan Irlandan gaur arte, bikote ezkonduer mugarua baitzegoen, izatezko bikoteak baztertua. Hala ere, Irlandako gizarteak aurrera egin du azken urteetan, eta sexu bereko bikoteen ezkontzeko eskubidearen inguruko herri-galdeketa egin du. Hau da, gizon baten eta emakume baten arteko loturak eta bi emakume edo bi gizonenak balio juridiko bera izan behar duen galde egin diote gizarteari. Baiezkoa garaile izanik ere, bada zer ikasi ugari erreferendum hartatik.

Alde batetik, galdeketa galdera sakona dakar: giza eskubideak bozkatu egiten dira? Legearen aurrean denok berdinak gara, bai gure eskubide bai gure betebeharretan. Horregatik, nahigabetzeko modukoa da Irlandako egoera, emaitza positiboa izanagatik, bidea ez delako zuzena. Aurtengo otsailean Eslovakian erreferendum bera burutu zen eta %94,5ek sexu bereko bikoteen ezkontzen aurka egin zuten. Ongi etorri XXI. mendeko eskubideen Europara.

Beste aldetik, Irlandako legeen arabera ugaltzea baldin bada ezkontutako bikotearen helburua, eta horretarako estatus hori duen bikote orok lagundutako ugalketa teknikak baditu bere eskura, sexu bereko bikoteek ere hala izango litzukete. Hor piztu da hain zuzen eztabaida sakonena: bereziki gizonek osatutako sexu bereko bikoteek subrogazioa eskura izango balute, haiek ere guraso izan ahalko li-

rateke eta badirudi hori ez dela denen gustuko. Ezkontzaren helburua ugaltzea omen da haien iritziz eta, modu naturalean ugaltzea ezin direnei, eskuraz jartzen zaizkie lagundutako ugalketa teknikak; baina teknikok bikote ezkondu homosexuali guraso izateko bidea zabaltzen badiete, orduan ez omen dira hain onargarriak... Ez ote zen, bada, ezkontzaren helburua ugaltzea? Agian soilik norbaiten gustukoak ugaltzea izango da helburua.

Gorabeherak gorabehera, Irlandan bikote homosexualen ezkontzak onartu dira, eta Europar Parlamentuaren txostenak ere hala eskatzen die estatu kideei, baina gehienek entzungor egiten dute. Txostenaren harira, Alemaniako kantziler Angela Merkelek publikoki adierazi du ez dela gaiari heltzeko une aproposa. Badirudi gizarte inklusiboagoak egitea ez dagoela gure goi-politikarien berehalako asmoetan.

ADOPZIOAREN AMESKERIA

Espainian eta Frantzian bikote homosexualen ezkontza onartzean, legeak gainerako bikoteek duten adoptatzeko eskubide bera aitortu zien... teoriarik. Adoptzio prozesuan administrazioak egokitasun ziurtagiri bat eman behar die guraso eskatzaileei, hau da, bikote hori guraso izateko aproposa dela

28 estatuko Eskubideen Europar oraindik zazpi estatutako konstituzioek ezkontza gizonaren eta emakumearen arteko loturara mugatzen dute. Zazpi horiez gain, beste hamar dira sexu bereko bikoteen arteko lotura ezkontza moduan onartzen ez dutenak. GAUR8

ebatzi behar du. Ziurtagiri hori eskuan, adopzio prozesua has daiteke. Bikote homosexualen kasuan, sarri salatu da egokitasun ziurtagiri hori lortzea gainerako bikoteentzako baino zailagoa dela. Datu gutxi dardelarik hori baieztatzeko, baina oso esanguratsuak; berriki Ezker Batuak Zerbitzu Sozialen Aragoiko Institutuari galde egin zion zergatik bikote homosexualak egindako 405 eskaririk hiruri bakarrik aitortu zien adoptatzeko egokitasuna.

Gogoan izan ziurtagiriak adopzio prozesua hasteko aukera besterik ez duela ematen; eskaria egin eta itxarotzerrendetan sartzea baino ez du ahalbidetzen. Eskaria adopzio nazionalerako egin liteke, jakinik urtean gutxi gorabehera 200 haur ematen direla adopzioan eta 33.000 bikote daudela itxarote-zerrendan. Kontuak atera. Beste aukera nazioarteko adopzioarako eskaria egitea da, jakinik munduan 16 lurraldetan baino ez dela onartzen sexu bereko bikoteen adopzioa, eta lurralde horiek orokorrean ez dutela haurrak adopzioan emateko premia handirik izaten. Adibide argia Holanda da; iaz hiru haur eman zituen adopzioan. Suedian, Hegoafrikan, Islandian, Finlandian, Norvegian, Kanadan, Danimarkan... zen-

bakiak ez dira oso desberdinak. Hortaz, adoptatzeko eskubide teorikoa eman bai, baina ez da aukera erreala.

LAGUNDUTAKO UGALKETA TEKNIKAK

Estatu kide askotan ezkontza gizon eta emakumearen arteko lotura bada bakar-bakarrik, lagundutako ugalketa tekniketara jotzeko ezkontuta egotea eskatzen denean, *de facto* sexu bereko bikoteei ukatu egiten zaie eskubide hori. Espainiako 14/2006 Legearen lehen idazketak ere intseminazio artifiziala eta *in vitro* ernaltzea bikote heterosexuali mugatzen zien. Zorionez, besteak beste EAEtik bultzatutako proposamenari esker, hasierako planteamendu hori aldatu eta emakume bakarrei eta bi emakumez osatutako bikoteei ere zabaldu zitzaion aukera hori, oraindik osasun zerbitzu publikoan askotan trabak gainditu behar dituzten arren. Frantzian berriz, legea iaz aldatu zen, emakume bakarrei eta lesbiana bikoteei lagundutako ugalketa tekniketarako atea irekiz. Berandu datorren arren, besoak zabalik hartzen dugu lege aldaketa. Horren ondorioz, egun gero eta normalagoak dira familia homoparentalak, bereziki bi amaz eta beren seme-alabez osatutakoak.

Zoritxarrez, bi gizonez osatutako bikoteek itxita daukate lagundutako ugalketa tekniken atea, bai Frantzian, bai Espainian. Halako bikoteek haur bat mundura ekartzeko lagundutako ugalketa teknika haurdunaldiaren subrogazioa da, eta gure legediak ez du onartzen. *In vitro* ernalketa edo intseminazio artifiziala bezala, lagundutako ugalketa teknika gisa onartzen dute American So-

ciety for Reproductive Medicine, Society for Reproduction and Fertility, Société Européenne de Gynécologie eta Sociedad Española de Fertilidad bezalako erakundeek, baita Espainiako 14/2006 Lagundutako Ugalketa Tekniken inguruko Legeak ere, gainerako ugalketa teknikekin batera aipatzen duenean.

Sinplea emanagatik, haurdunaldia aurrera eramateko hiru elementu behar dira; obulua, espermatozoidea eta umetokia. Egun Espainian eta Frantzia obulurik ez izatea ez da traba, obulu-emaileen erabilera arautua eta onartua baitago. Gauza bera gertatzen da espermatozoideekin. Bi estatueta arauen arabera, umetokia da ekuazio horietan aldagai moldakaitz bakarra; beraz, erromatarren lege printzipio hura indarrean da oraindik: *mater semper certa est*. Ama erditzen dena besterik ez omen da, edo, bestela esanda, norbere haurra norbere umetokian hazitakoa baino ez da izango.

Haurdunaldiaren subrogazioak lege printzipio hori aldatzea dakar. Hau da, ama ez da erditzen dena. Gainerako lagundutako ugalketa tekniketaz baliatuz, bikote baten haurra beste emakume baten sabelean haziko litzateke. Bikote heterossexual batzuen kasuan, emakumeak ezin du haurdunaldia aurrera eraman umetokirik ez duelako, edo osasun arazoengatik komeni ez zaiolako. Bikote gizonezko homosexualetan, umetokirik ez dutenez, haurra munduratuko dien emakume baten laguntza behar dute. Haurdunaldia gauzatzeko duen emakumeak ama subrogatua edo ordezkaria izena hartzen du.



Bikote homosexualek guraso izateko trabaz betetako aldapa gogorak igo behar dituzte, eta emaitza beti ez da esperotakoa izaten.
GAUR8

Espainiar Estatuan 14/2006 Legeak subrogazioa gauzatzeko asmoz egindako edozein kontratu baliogabetzen du; bai ordainsaria ezartzen den kasuan, bai ezartzen ez denean ere. Hau da, bikote batek ordezkaria emateko akordio oro baliogabea izango litzateke eta kontratu hori ez litzateke inongo epaitegitan onartuko kontrako parteak hartutako betebeharren ebidentzia gisa. Labur esanda, aldeak biluzik utziko lituzke edozein kontingentziaren aurrean. Frantziaren kasuan, Kode Zibila arautzen du subrogazioa eta kontratu hori existitu dela frogatuko balitz, jaiotako haurrarekiko eskubideak ukatuko litzazkiekeela borondatezko gurasoei. Espainiaren kasuan gertatzen den moduan, ordainsaria izan zein ez, eragina berbera izango litzateke.

Bi Estatueta alderdi politiko nagusiek diote emakumeen gorputzarekin salerosketa ekin nahi dutela. Hala ere, gaur egungo araudiak ez du hori

esaten, izan ere, nola izango da salerosketa ordainsaririk ez dagoen subrogazioa? Preziorik bitarteko ez denean, Espainiako kasuan, kontratua baliogabea izanik bidean arazoren bat sortuko balitz, aldeak ez lukete inongo babesik izango bata besteari ezer erreklamatzeko, baina ez litzateke delitu izango. Ordainsariaren bat tartean egongo balitz, ordeza, horrek gauzak aldatuko lituzke. Bi Estatueta kasuan giza trafikoa egozteko aukera izango litzateke.

ATZERRIA EZ BESTE IRTENBIDERIK

Oztopo horiek ikusita eta guraso izan nahiak bultzatuta, bikote askok atzerrira jotzen dute haurrak izateko. Lurralde asko dira subrogazioa onartzen dutenak, batzuek zehatz arautzen dutelako (Europar Batasunean Erresuma Batua, Belgika, Holanda, Grezia...) eta beste batzuk, kontrako legerik ez izanda, aldeko politikak dituztelako (Zipre, Txekia, Irlanda...). Hala ere, ezagunenak Es-

tatu Batuak, Ukraina eta India dira, atzerritarrei mugarik ez baitiete jartzen, eta haurdunaldiaren subrogazioa komertziala onartzen dutelako.

Espainiako eta Frantziako trabak gainditu nahian guraso askok jotzen dute aipatu lurralde horietara, bereziki Estatu Batuetara. Bertan, normalean agentzia baten bitartez, ordezkaria amak eta borondatezko gurasoek, hautaketa prozesu baten ondoren, elkar aukeratzen dute. Kontratua sinatu eta prozedura medikoa abiarazten dute. Haurrak ez du lotura genetikorik izaten ordezkariarekin, enbrioia borondatezko gurasoen edo emaileen material genetikoz sortzen baitira. Ondoren, haurrak jaiotakoan, epaile batek ebatzi behar du erditu den horren ordezkari borondatezko gurasoak direla haur horren guraso. Jaiotza agiri horrekin Kontsulatuko Erregistrora joan eta haurraren izena gurasoen jaioterriko erregistroan eman ahalko lukete. Hori eginda, haurra eskubide guztiekin jango da etxera gurasoekin batera, beste edozein haur bezala.

Hasieran are errazagoa zen. Bikote heterosexualek Los Angelesera bidaiatzen zuten eta subrogazioa jaiotako haurrak zuzenean onartzen zituzten erregistroan. Europar Batasunak jokaera horren zurikeria salatu zuen bere txostenetako batean; izan ere, espainiarren jaiotza tasa mila biztanleko 9,8koa izanik, Los Angeleseko Kontsulatuko Erregistroan izena emandakoena 50,01ekoa zen. 2005ean hasi ziren gora-beherak, bikote homosexualen arteko ezkontzak onartu eta gainerako bikoteen bide bera jarraitu nahi izan zenean. Or-

duetik aurrera atzerrian jaiotako milaka haur ez daude behar bezala erregistratuta ez Frantzia, ezta Espainian ere. Zorionez, Estrasburgoko Giza Eskubideen Epaitegiak agindu zuen haurrok erregistratzeko prozedura bat ezartzea kasu horiei bide emateko. Tamalez, iaz, Justiziako ministro Rafael Catalá agindua bete eta erregistroen korapiloa askatuko zuela hitz eman bazuen ere, ekainaren 2an iritziz aldatu eta erregistroak geldiarazteko agindua eman zuen, Hagako Konbentzioak dioenari eta Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegiaren doktrinari entzungor eginez.

LGTBI kolektiboei ugalketa tekniketaz erabilera murriztea nahikoa ez da familia homoparentalei erregistro zibiletako ateak ixten zaizkie. Horren ondorioak tamalgarriak dira familia horientzat, haurrak erregistroan agertzen ez direnez, oinarrizko zerbitzu sozialak erabiltzeko oztopoak baitituzte. Legearen aurrean atzerritarrek dira. Familia homoparentalek ez dute erraza normaltasunez bizitzea.

Ezin ezkondu, ezin guraso izan eta ezin umeei bizi. Oztopoak oztopo, badatoz apurka-apurka Los Angelesetik familia homoparentalen zikoinak, trabak gaindituz, ankerkeriei aurre eginez eta bazterkeriari erantzunez, egunen batean Parisetik eta Madrildik ere etorriko direla amestuz.

Gure zikoinen bidea lautuko dugu eta egunen batean Lizarratik ere etorriko dira, eta Baionatik, Markinatik, Hernanitik edo Oiondik, Euskal Herriko txokoak ostadar kolorez bete eta gizarte inklusiboagoa sortzera.



Unai Fernandez de Betoño
Arkitektoa

Estalkiaz

Iragan maiatzaren 18an zabaldu zen Donostiako Trinitate plazako frontoia estaltzeko arkitektura lehiaketa. Orain epaitza emango ote den ikusteke dago, gutun azalen irekiera sine die atzeratu baita. Xehetasun teknikoez harago (halako ideia-lehiaketa batean parte hartzeko esperientzia demasekoa eskatzea eta soilik 15 eguneko epea ematea ez da zentzuzkoa), eztabaida interesgarria piztu da estalkiaren aldekoen eta aurkakoen artean, ondare eraikiaren inguruko esku-hartze ugarirekin gertatu bezala.

Parte Zaharreko auzotarren eskaria da frontoia estaltzearena. Ia 30 urte baitaramatzate auzoan espazio estali duin bat aldarrikatzen, kirolerako zein bestelako ekitaldiak euripean antolatu ahal izateko. Gure alde zaharrak baitira ekipamendu eta espazio publikoen gabezia historiko handiena duten auzoak. Horrexegatik estali dira Euskal Herriko hainbeste frontoi azken urteotan: erabilgarritasunagatik.


Hala ere, eskaera sozialki etiko horrek estetikarekin egin du topo. Arkitekto batzuek defendatutako estetikaren ulerkera jakin batekin, zehazkiago: autore-obra jenial eta ukiezinarena. Estetikoa baino, estatikoa den ikuspegia. Plaza baten erabilera bizi eta aldakorren gainera argazki izoztu eta ustez miragarri bat ezarri nahi duena, kultura aitzakia gisa erabiliz. Baina babestu nahi den ondare mota ez da historian zehar gizartearen adimen kolektiboak hainbat geruza gainjarriz modu anonimoan eraikitakoa, baizik eta Artista (letra larriz) indibidual baten bat-bateko burutazio bi-

kain eta errepikaezina. Horrenbestez, talentuaren erditze aparteko hori zertxobait eraldatzen duen guztia gaizki ikusiko da.

Trinitate plazaren «jatorrizko» proiektu bikaina aldarrikatzen dutenek alde batera utzi dute Luis Peña Gantxegi arkitektoa ez zela hutsetik abiatu hura proiektatu omen zuenean (proiektuaren planoak ez dira oraindik aurkitu eta Santos Etxebarría delineatzailearen papera funtsezkoa izan zela onartuta dago). Izan ere, leku hartan bazegoen plaza bat jadanik (hura okupatzen zuen kartzela 1890ean eraitsi zutenetik), bazegoen frontoi bat jadanik (orain dagoen berdina, hain zuzen ere, 1931tik bertan dagoena), bazegoen bolatoki estali bat jadanik (1956an eraikia, frontoiarekiko elkarzut, egun dagoena bezalatsu), eta bazegoen mailaditxo sotil bat jadanik (1936a baino lehenago eraikia). Pascual Marín eta Arturo Delgadoren argazki historiko ederrak ikustea besterik ez dago.

Hortaz, 1963an inauguratutako plazaren «jatorrizko» egoera berreskuratzea eskatzen denean, argi izan behar da Peñak 30 urteko erreboteko frontoi bat desitxuratu zuela (pareta bat botaz eta beste bat moztuz), baita bost urteko euskal estiloko bolatoki bat eraitsi ere. Aurretik zegoen ondarea ukitu egin zuen, beraz, baita sobera ukitu ere, emaitza bikaina erdietsiz, hala ere. Orduan, zergatik suposatu behar dugu alde aurretik oraindik egin ez den estalki berria estetikoki kaskarra izango dela?

Egunotan entzundakoa: «Dudarik gabe, Peña lehiaketa honetara aurkeztuko zatekeen gaztetan». •



Ilustrazioa: UNAI FERNANDEZ DE BETOÑO

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

Aldaketaren lehentasunak eta lehengaiak

Angulak eta *swap*aren metafora sarri erabiltzen dugu GARAKo erredakzioan, ederki laburbiltzen baitu egungo kazetaritzaren ahulguneetako bat. Zubietako errauskailuaren proiektuari lotutako bi albisteri dagokie adibidea. Bata zein bestea 2013. urtearen hasieran, aste eskas batzuetako tarteaz, zabaldu ziren. Lehenik angulena ezagutu zen: Zubietako egitasmorako beharrezko finantziazioa lortua zela ospatzeko-edo, bazkari batean eta afari batean 2.860,65 euro gastatu zituzten orduko Gipuzkoako gobernariak. Hortik gutxira, *swap*arena aieratu zen; errauskailuaren proiektua itzulezina egiteko asmoz, blindaje gisa horrelako finantza kontratu itsusia kontratatua zuten orduko gobernari berdinek. Azken horren «faktura» angulena baino nabarmen garestiagoa zitzaien Gipuzkoako erakundeei (300.000 euro hiler, antza). Bai kopuruagatik, bai helburuagatik, bigarren auzi hori berez larriagoa bazen ere, gu gehienon gogoa angulak gelditu dira artxibatuta, ez *swapa*. Esan gaiteke, albiste batek zein besteak oso trafiko ezberdina eragin zutela sarean...

Betidanik ziurtatu izan da irudi batek mila hitzek baino gehiago balio duela. Egia izaten jarraitzen du horrek, baina komunikazioaren paradigma modernoan beste zerbaitek hartu dio aurrera irudiari: anekdotak. *Swapa* kontratatzeak zekarrenaren

aldean, geroko ospakizunean bapo gelditu izanak ia anekdota itxura besterik ez baitu hartzen. Baina askotan gure nahiaren kontra, kazetariok jakin badakigu zein azkar eta zein urruti hel daitezkeen horrelako kontu arinagoak, edonorentzat erraz ulertzekoak (zer esanik ez *swap* baten funtzionamenduaren aldean!), tabernako barran ezarrita edo autobusaren zain zaudela ondokoari erraz azaltzekoak, eta txiste, meme, txutxu-mutxu eta abarretarako egoki-egokiak. Irakurleek *swap*ari arreta gehiago eta angulei gutxiago eskaintzea nahiko genuke, baina gero eta zailago zaigu, eta ondorioz, anekdotaren aldera gero eta gehiago jotzen dugula esango nuke.

Publikoa berbera izanik, politikan ere indartzen ari da joera hori. Anekdota, detailea, keinua, *performancea*... lehenik osagarri edo apaingarri baino ez zena ekinbide politikoaren erdi-erdian jartzeko tentazioa hor da, boto-

emailaren arreta eragiten duen neurrian. Oso adierazgarria da, esate baterako, Nafarroaren aldetaren inguruan sortzen ari diren arretagune bitxiak: Bianako Printzearen sariaren izena Uxue Barkosek aldatuko ote duen, Iruñeko txupinazoa jaurtitzeko ardura Joseba Asironek nori emango ote zion, hemengo eta hango udal agintari berriak beren herrietako prozesioetara joango ote diren... Keinuen erabileran gehiegikeria ere azaleratu da; Nafarroako Legebiltzarraren eratze ekitaldian arduradunek euskara eta erromaniera baino ez zutela erabili entzutea edonor zur eta lur uzteko modukoa da, are harrigarriagoa hori jardura politiko ezaguna duten Ainhoa Aznarezen zein Koldo Martinezen eskutik gertatu denean.

Ez dakit ba. Aukeran, iraultza antzeztea baino, hobe al daketa egitea. Itxurazko kontuek itxurakeria azkar ekar dezakete, eta hainbatetan, aldetaren benetako gauzatzeari kalte egin diotela ikusi da Gipuzkoan (ikasi al da?),

Antzezpenak behar ditu egungo politika jardunak, ados. Baina iraultza antzeztea baino, hobe al daketa egitea, eta horrek lehentasunak ezartzea eta herritarren atxikimendua sustatzea dakar

jende ugari indiferentziatik EH Bilduren aurkako botoa ematera pasaraziz. Nafarroan, aldetak lehentasunak finkatu beharko ditu, hain garrantzizkoak ez diren kontuak alboratuz edo atzeratuz (edo zuzenean bertan beharra utziz), eta benetako ekintzak anekdota eta keinu hutsen gainetik jarritz. Eta argi izanda lehentasunak zehazteko eginbehar hori ezin duela kaleko jendeak egin, horren ardura duten ordezkari politikoek baizik.

Horrekin batera, aldetak, lehentasunez gain, lehengai ere behar du ezinbestean; hots, herriaren gehiengoaren atxikimendua. Egonkortu ez ezik, zabaldu egin behar den gehiengo berria (Gipuzkoako adibidea ispiluan berriz). Egungo politikagintzak, ekintza sakonez gain, keinu sinbolikoak behar dituela ukalezina da garai nahasi hauetan, baina tentuz eta kontuz, azkenean angula ari nek ez dezaten *swap* astuna guztiz irentsi. •

JAIK ETAK PAREKIDETASUNA

Bidean parekide bihurtu diren betiko ohiturak

📁 JENDARTEA / Amagoia Mujika Telleria - Maider Iantzi Goienetxe

Beti horrela egin izan delako. Inoiz ez delako horrela egin. Argudio horiek aitzakia gisa erabiliz, emakumeei ate asko itxi zaizkie jaietako egitarauetan. Ate horietako batzuk parez pare ireki dira, tartean eztabaida, iskanbilaren bat eta zalantzak izan arren. Krisiak krisi, denborak normaltasuna ekarri du eskutik. Andoaingo azeri-dantza, Zubietako joaldunak, Legazpiko ezpata-dantza eta Donostiako danborrada ekarri ditugu adibide modura, behinola herritarrek parekidetasunaren aukera besterik ez zegoela ulertu eta bide hori egin zutelako.

ANDOAINGO AZERI-DANTZA

«Gaurko egunean, ez dut azeri-dantza emakumerik gabe ulertzen»

Andoaingo azeri-dantza 1974. urtean berreskuratu zuen bertako Lizar Makil dantza taldeak. Andoainen eta Adunan dantzatzeko da musika, joan-eto-riak, jolasak, zirikal- diak eta harrapaketak batzen dituen pieza berezia. Juantxo Arregiren bizitzako pasarte oso garrantzitsua da azeri-dantzarena, berreskuratu zenetik gaur arte lehen lerrotik bizitu baitu tradizio jostalaria.

«Bixente Olano kultura arloan oso garrantzitsua eta jantzia zen, eta berak jaso zuen Andoainen egiten zen azeri-dantzaren berri. Ikertzen hasita jakin zuenez, Adunan adinean aurrera joandako hiru gizonek bazekiten nola dantzatzeko zen, bere garaian egin zutelako. Eta haiengana joan zen, laguntza eske», hasi da kontatzen Arregi. Berak, orduan, 17 bat urte zituen eta Lizar Makil dantza taldean zebilen, Olanorekin. Kostatu omen zitzaien Adunako hiru gizonezko horiek konbentzitzea, baina azkenean lortu zuten azeri-dantza nola egiten zen ikustea eta ikastea, eta Andoaingo herriari eskaintzea erabaki zuten. «1974. urtean

dantzatu genuen lehen aldiz, Adunan, Lizar Makil dantza talde bezala. Hurrengo urtean, 1975. urtean, Andoainen hasi ginen, baina herriko dantza bezala, parte hartu nahi zuten herritarrek, ez dantza talde bezala».

Ordutik, Andoainen San Joan egunez, ekainaren 24an, dantzatzeko da, eta Adunan, Andra Mariaren egunean, abuztuaren 15ean.

«Oso dantza bihurria da, jostalaria, ganberroa... helburua ondo pasatzea eta ondo pasaraztea da. Ez dauka pauso solemnerik eta mugimendu handikoa da», segitu du Arregik.

BURUTIK PASATU ERE EZ

1975. urtean berreskuratu zutenetik, urte luzez gizonezkoek bakarrik dantzatu izan dute azeri-dantza. «Hala jaso genuen dantza, tradizionalki horrela egiten zen eta ez zitzaigun burutik pasatu ere egiten emakumeak parte hartzearen aukera», kontatu du Arregik.

Hastapenetan, azeri-dantzak dezenteko arrakasta zuen herrian eta talde ederra



Juantxo Arregik lehen lerrotik jarraitu du azeri-dantzaren garapena, 1974. urtean berreskuratu zenetik. Jon URBE | ARGAZKI PRESS

elkartzen zen, 30 bat lagun. «Pixkanaka, ez dakigu zergatik baina jaisten joan zen parte-hartzea. Guk parte hartzeko deia han eta hemen egiten genuen urtero-urtero, baina apaltzen joan zen. 2000. urtearen aurreko fasea zen hori. 1999. urtean –gizonezkoak bakarrik atera ziren azken urtea–, 13 lagun bakarrik atera ginen azeri-dantzaren», gogoratu du Arregik.

Ordurako, herrian emakume talde bat mugitzen hasia zen, azeri-dantzaren parte hartu nahian. «1997. urtearen bueltan, entsegu batean geundela, herriko emakume talde bat

etorri zen, beraiek ere azeri-dantzaren parte hartu nahi zutela esanez. Harrituta geratu ginen, ez genuelako espero. Eta aztoratuta ere geratu ginen, zer egin ez genekiela. San Joan egunerako hamar egun eskas falta ziren eta urte hartarako ja berandu zela esan genien, baina aurrera begira hitz egingo genuela. Ez genien aterik itxi».

Hurrengo urte pare besterik gabe pasatu omen zen, emakume talde hori ez zen berriz agertu eta gizonezkoek bakarrik parte hartu zuten azeri-dantzaren. Baina 2000. urtean berriz ere jarri zen gaia

mahaiaren gainean. Emakume talde batek garaiz, denborarekin, agertu zuen azeri-dantzaren parte hartzeko borondatea eta erabakia hartzeko garaia iritsi zen.

«Nik ez neukan batere garbi. Taldean, gehiengo emakumeak parte hartzearen kontrakoa zen, eta neroni ere horretan nengoen. Beti onartzen dut nik hasieran ez nuela ongi ikusten emakumeen parte-hartzea. 25 urte generamatzan azeri-dantza gizonezkoek bakarrik egiten, ohitura horixe zen eta gure buruan ez zen beste aukerarik sartzen», kontatu du Juantxo



«Azeri-dantzak indarra hartu du eta emakumeen parte-hartzeak badauka bere parte horretan»

ANDOAIN, AZERI-DANTZA



«Ekitaldi nagusietan pisua beti mutilek edukitzea ez da egokia; gure taldean neskek garrantzia handia dute-eta»

LEGAZPI, EZPATA-DANTZA



«Egun danborrada baztertzailen kopurua oso txikia da eta mistoak asko ugaritzen ari dira»

DONOSTIAKO DANBORRADA



«Umetatik aita eta anaiekin ibiltzen nintzen kinki kanka. Zurrumurruak baziren; baina ez nien kasurik egiten»

ZUBIETAKO JOALDUNAK

Arregik.

Ez ziren egun samurrak izan. Emakumeen parte-hartzearen kontrakoa izan arren, barruan zer edo zer mugitzen zitziola sentitzen zuen, eta korapiloa sortzen ziola, egonezina. «Etxean, emaztea eta seme-alabak emakumeak parte hartzearen aldekoak ziren eta kanpaina gogorra egin zuten. Neroni ez nengoen lasai, kontraesan handiak sortzen zizkidan erabaki hark. Baina, azkenean, nire barruko borroka gogor baten ondoren, pentsatu nuen: 'eta zergatik ez?'».

LEHEN ALDIZ, PAREKIDE

1999. urtean, hamahiru lagunek parte hartu zuten azeri-dantzan. Behin jaiak amaituta eta hurrengo urteko sanjoanak iritsi baino lehen, azeri-dantzako taldea bilerak egiten hasi zen, Udalean emakumeen parte-hartzearen inguruko erabaki bat hartze aldera. Eta aurrera egitea erabaki zuten, emakumeei azeri-dantzarako atea irekitzea. Arregi eta beste bat baino ez ziren geratu ordura arteko talde horretatik. Gainontzekoek, erabaki horrekin konforme ez zeudenez, alde egitea erabaki zuten. Herrian ere igarri zen mugimendua, herritar zenbaitek desadostasuna azaldu zuen; bere horretan geratu zen, ordea. «Herritar batzuk ez zeuden ados. Baina egia da ikusle kopuruan ez zela igarri. Krisi txiki bat pasatu zen, baina herritarrek azeri-dantza ikustera etortzen jarraitu dute», kontatu du kasik 35 urtean

azeri-dantzako buruzagi izan denak.

«Niretzat gogorra izan zen eta, neurri batean, porrota ere izan zen. Taldeko bi kide bakarrik geratu ginen; gainontzekoek erabakia onartzen zutela baina erretiratu egingo zirela esan ziguten, ez zutela gehiago parte hartuko. Batzuekin distantzia pixka bat ere izan dut. Hala ere, denborarekin konpondu ditugu kontuak. Eta badakit orain desberdin ikusten dituztela gauzak».

2000. urteko azeri-dantza arrakastatsua izan zen. 40 bat

lagunek dantzatu zuten, gutxi gorabehera erdiak emakumeak eta erdiak gizonak. «Ni eta beste kide bat kenduta, dantzari guztiak berriak ziren. Esan daiteke azeri-dantzaren aldi berri bat hasi zela. Nik argi eta garbi esan nien ez nuela nahi azeri-dantza lorpen bat bakarrik izatea. Iritsi, parte hartu eta joan. Azeri-dantzak jarraipena behar zuela, parte-hartzea ziurtatu behar zela eta bizirik eutsi behar zitziola. Eta oso pozik nago, herritarrek azeri-dantzarekin hartu duten konpromisoa benetakoa izan delako, ez delako urte bateko

kontua izan. Gaur egun, oso osasuntsu dago, gizon eta emakumeek berdina parte hartzen dute, herriak berea sentitzen du eta aurrera egiteko moduan dago. Oso-oso pozgarria da».

OSASUNTSU ETA PAREKIDE

Gaur egun, inork ez du azeri-dantza emakumerik gabe imajinatzen. «Azeri-dantzak sekulako indarra hartu du eta, zalantzarik gabe, emakumeen parte-hartzeak badauka parte horretan. Gaurko egunean, ez dut azeri-dantza emakumerik gabe ulertzen. Parte-hartzeak gora

egin du, 30-40 lagun inguru biltzen dira urtero, eta erdia inguru emakumeak dira. Herritarrek erabat inplikatu dira azeri-dantzan eta uste dut emakumeek parte hartzea sekulako arrakasta izan dela. Benetan pozik eta harro nago hartu genuen erabakiarekin», esan du. Lauzpabost urte dira azeri-dantza jende artetik ikusten duela Juanxo Arregik, hunkituta eta harro, aspaldi berreskuratu zuten dantza berezi hori belaunaldiz belaunaldi bizirik transmititzen asmatu dutelako eta bidean parekidea bihurtu delako.



San Joan egunez azeri-dantzak hitzordu garrantzitsua dauka Andoainen. Irudian, aurtengoa . Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

LEGAZPIKO EZPATA-DANTZA

«Guretzat inportanteena dantza da, eta hau nola egiten den»

Joan den maiatzaren 3an, Legazpiko jaietako Santikutz egunean, dantzatu zen ezpata-dantza Euskal Herri osoko etxeetara iritsi zen, lehenbizikoz neskek eta mutilek parte hartu zutelako, arropa berdina jantzita.

Sustraiak taldeak 40 urte bete ditu aurten eta bertan aspalditik dabilen Jon Dorronsororekin mintzatu da GAUR8. Oroitu duenez, hasieran haur taldeak zeuden, bai neskena bai mutilena. Heldu egitean, elkartu eta proiektu berria sortzea erabaki zuten.

Aurreneko urteetan nahiko mutil eta neska zegoen, baina gero, urtetik urtera, neska kopurua gehitzen joan zen eta

mutilena gutxitzen, dantza talde gehienetan gertatzen den bezala.

Taldea sortu eta egin zuten lehendabiziko lanetako bat Legazpiko ezpata-dantza berreskuratzea izan zen. Mutilek egiten zutenez, hauek bakarrik hasi ziren eta urte pila batean hala egin dute. Festetan dantzatzen den dantza hau urteroko ekitaldi garrantzitsuena izaten da, taldeak herriari eskainitako dantza.

2011ko AURREKARIA

«Beti mutilek dantzatzea, ekitaldi inportanteenean paper nagusia mutilek edukitzea, taldean gauza askotan neskek pisu



Ezpata-dantzariak aurtengo Santikutz egunean, Legazpiko Euskal Herria plazan. SUSTRAIAK DANTZA TALDEA

handiagoa hartzen zutela ikusita, ez zitzaigun oso egokia zenik iruditzen. Hori zela-eta, 2011. urtean hitz egiten aritu ginen eta ezpata-dantza neskek dantzatzea pentsatu

genuen. Behin behintzat, ea horrela gauzak pixka bat aldatzen hasten ginen. Baiezkoa eman zuten eta urte hartan neskek bakarrik dantzatu zuten».

Jaiez aparte, Sustraiak taldearen beste ekitaldietan, herrian eta herritik kanpo egiten zituztenetan, batzuetan ezpata-dantza mistoa egiten zuten, neska eta mutilekin;

DONOSTIAKO DANBORRADA

Mistoa bada, parekidea izatea falta zaio

«Donostiako danborrada mistoa da, baina ez parekidea». Halakoxe ondorioak jarri dituzte mahai gainean Beatriz Moral eta Margaret Bullen antropologoek, “Emeki-emeki, berdintasunezko danborradarantz” liburuan. Danborrada oso anitza da, batez ere konpainia bakoitzak errealitate propioa bizi duelako, baina badira hamarkada batzuk emakumeek parte hartzen dutela. 1980. urtean atera zen lehen emakumea danborra jotzen, Kresalako konpainiaren eskutik. Aurretik, hala ere, izan

ziren aurrekariak, 1927tik 1936ra bitarteko argazkietan emakumeak danborra jotzen ageri baitira, ez kantinera modura bakarrik.

Baina egungo danborradari begira jarrita, emakumea lehenengoz 1980. urtean atera zela esan daiteke. Kresala elkarte kultural bat da eta gizon-emakumeek ekintza guztietan parte hartzen zuten. Hartara, ez zuten ulertzen danborradan zergatik ez eta horixe helarazi zioten alkateari. Jesus Mari Alkain alkateak begi onez ikusi zuen proposamena

eta emakumeei atea ireki zien danborra jo zezaten. Alde Zaharreko danborrada tradizionalak, baina, ez zuten begi onez ikusi aldaketa eta emakumeak ateraz gero haiek ez zirela aterako mehatxu egin zuten. Alkateak garbi zeukan kontua: ateratzen ez baziren hiriko bandera Kresalak berak igoko zuela esan zien. Hartara, Alde Zaharreko beste danborradek mehatxua atzera bota eta urtero moduan atera ziren.

Pixkanaka eta urtez urte, emakumearen presentzia

areagotzen eta normaltzen joan da Donostiako danborradan eta horretan zerikusia izan du segur aski Udalak zenbait garaitan agertu duen jarrera irmoak.

1997az geroztik, 2005. urteko Berdintasun Legera arte, hainbat pauso eman dira parekidetasunaren bidean. 1998. urtean, Udalak danborradentzako diru-laguntzen irizpideak aldatu zituen, mistoen mesedetan, eta 2008. urtean, danborrada baztertzailerei diru-laguntzak ukatu zizkien.

Beste mugarri bat 2006. urtean jarri zen. Ordura arte, gizonezkoek bakarrik parte hartzen zuten banderaren igoeran eta jaitsieran, Gaztelubide elkartearen eskutik. 2006. urtean, Intxaurrondoko Artzak Ortzeok elkarteko

hamabi emakume igo ziren oholtza gainera.

Pauso garrantzitsua izan zen, zalantzarik gabe, nahiz eta desfiletik kanpo gertatzen diren egoera askotan oraindik urrunxeago ikusten den parekidetasuna. Aipatutako liburuan jasotzen denez, Gaztelubide elkartearen izaten den afari sonatu horretan ez zuten parte hartu Artzak Ortzeok taldeko emakumeek. Plater konbinatu bana jan ondoren igo ziren Konstituzio plazako oholtza nagusira eta Gaztelubide elkartera ez ziren sartu ere egin. Gaztelubideko afari famatuak eman du zeresana, bere menuan ez baitzegoen parekidetasuna aukeratzerik. 1987. urtean Pilar Mirorekin gertaturikoa sonatua izan zen. Ohituraz, gizonezko udal ordezkariak eta Urrezko

beste batzuetan, ordea, dantza hau egiteko deitzen bazieten, mutilek bakarrik egiten zuten. «Baina pixkanaka hori ere aldatu behar genuela pentsatu genuen. Dantzari eman nahi genion garrantzia, ez dantzaria mutila edo neska izateari», argitu du Dorronsorok.

EUSKARAK BEZALA, SEXURIK EZ
Sustraiak taldeko kidearen iritziz, euskarak generorik ez duen bezala, dantzak ere ez du zertan izan.

Horren adibide da garai batean mutilen dantza ohikoak edo tradizionalak zirenak gaur egun neskek dantzatzan dituztela, eta alderantziz gauza bera. Dantza batzuk neskentzat sortuak izan ziren eta orain mutilek dantzatzan dituzte. Aldatzen doa eta talde askotan dantza hauek erabat mistoak direla ikusten da.

«2011n, neskei ezpata-dantzarako zer jantzi nahi zuten galdetu eta eurak beren trajeekin, neskek erabiltzen dituztenekin, erosoago zeudela esan zuten, eta hala atera ziren. Baina aurten

ezpata-dantzari trajearekin atera dira, mutilak bezala. Ondorengo sokadantza eta beste dantzak bakoitzak zegokion jantziarekin egin zituen».

Dorronsorok gogoratu duenez, lehendabiziko aldian jendeak sorpresaz hartu zuen. «Baina ondo. Guk baino hobeto dantzatzan zutela esan zuten! Aurten, komentatua genien, abisatuta zeuden, neska eta mutilek elkarrekin egiteko erabakia hartuta genuela, eta ondo hartu zuten. Azken batean, guretzat inportanteena dantza da, eta hau nola egiten den, ez nork egiten duen. Neska edo mutila izan, arropa berdina jantzita ez da asko nabaritzen».

BEHAR DENEAN SOILIK EZ

Behar kontuak ere badira hauek. 1960ko hamarkadan, urte batzuetan, oso mutil gutxi zeuden dantza taldean, soldaduska kontuengatik, eta ezpata-dantzako aurreneko hiru figurak, kapitainak, neskak izan ziren. «Hori ondo dagoela ematen du, beharra baldin badago onartzen da.

«Hemengo ezpata-dantza berezia da, Legazpiko ezpata-dantza delako, ez neskek edo mutilek egiten dutelako»

«Ea normaltasuna lortzen dugun, hau da, albistea ez izatea neska-mutilek egin dugula, ezpata dantza dantzatu dela baizik»

Orduan, beharrik ez dagoenean ez onartzea... Hemengo ezpata-dantza berezia da, Legazpiko ezpata-dantza delako, ez mutilek edo neskek egiten dutelako», baieztatu du Dorronsorok.

Legazpin bi dantza talde daude. Maiatzeko Santikrutz jaietako azkeneko egunean Mirandaolako prozesioa egiten da eta ezpata-dantza dantzatzan da, bi taldeetako dantzariekin.

«Aurten, mistoa egitera animatzen ziren galdetu genien eta beste taldeko mutilak bai, prest zeuden; neskek esan zuten berandu abisatu geniela, baina agian datorren urtean... Nire ustez, animatuko dira, aurten nola atera den ikusita. Aldaketa bakarra da tokatzen zaien neskek plazara lehenago agertu behar dutela».

Sustraiak taldeko ordezkariak azaldu du beraientzat folklorea finkoa dela, baina, aldi berean, egoeraren arabera ere moldatzen dela.

«Gaur egun, ez zaigu oso egokia iruditzen dantza hau

mutilena edo neskena dela esatea. Dantza gehienak, arrazoi bategatik edo besteagatik, neska eta mutilek elkarrekin dantzatzan dituztela ikusten da».

TOKIAN TOKIKOAK, BEREZIAK

Gipuzkoako herri honetan ezpata-dantza duten gisan, beste dantza ugari tokian tokikoak dira, bereziak, hainbat mendetan dantzatuak, eta horiek aldatzea zailagoa izaten da. «Baina herri batzuetan jada hasi gara», esan du itxaropentsu. Dantzarien artean, oro har, arazorik ez dagoela iruditzen zaio: «Gu irekixegoak gara, beharbada neska artean gaudelako. Gure taldean 9 mutil eta 20-21 neska izango gara».

Legazpin urratsak egiten ari dira: aurrena 2011n, aurten beste pauso bat... Pixkanaka-pixkanaka normaltasuna lortzea du helburu Sustraiak dantza taldeak, hau da, albistea ez izatea neskek eta mutilek parte hartu dutela, ezpata-dantza dantzatu dela baizik.

Danborra jasotzen zutenak Gaztelubidera joaten ziren afaltzera. 1987. urtean Pilar Mirok jaso zuen saria eta, emakumea izaki, ezin izan zuenez Gaztelubiden afaldu, kalean eztabaida piztu zen. Bi urte geroago, Gabriel Celaya poetak jaso zuen Urrezko Danborra eta garbi erantzun zion Gaztelubidekoen gonbitari: bere tradizioa emaztearekin ospatzea zen eta hark ezin bazuen Gaztelubiden afaldu, bera ere ez zen joango. Geroztik, indarra galtzen joan da afaria.

Haur Danborradan neskatoen parte-hartzea ez da betiko kontua. Gainera, ez da ziurra neskatoak danborrarekin noiz hasi ziren; 1970eko hamarkadan, adituen ustez. Hasieran, belarritako gabe eta ilea jasota ateratzen ziren, oharkabean pasatzeko. Izan ere,



Gero eta danborrada misto gehiago daude, sortzen diren berriak misto sortzen baitira. Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

neskak soldadu gisa ateratzen zituzten eskolei diru-laguntza ukatzen zien Udalak. Urte batean, zenbait ikastetxek protesta egin zuten, eta desfilearen erdian neskatoei ilea askatzeko eskatu zieten. Geroztik pausoak eman dira, nahiz eta oraindik baden zer aldatu, Easo Ederraren figura kasu.

Gaur egun, danborrada baztertzailen kopurua txikia da; talde mistoen proportzioa, berriz, handitzen ari da. Izan ere, talde berri ia guztiak misto sortzen dira. Hala ere, gizon eta emakume partaideen kopuruak ez dira parekoak; oraindik parte-hartzaileen heren bat inguru baino ez dira emakumezkoak. Sasiak kenduta, bidea garbi samar ikusten da. Orain, aurrera egitea baino ez da geratzen.

ZUBIETAKO INAUTERIAK

«Neskak eta mutilak elkarrekin ibiltzen gara, bat gehiago bezala»

Iturendar eta zubietarren bihotz taupadek joare hotsa dute, emakume zein gizon izan. Juli Loiartek 49 urte ditu eta 17ko alabarekin batera atera da desfilatzen aurtengo inauterietan. Urtarrilaren 26an, astelehena, Zubietako arkupeetan jantzi, prestatu eta Iturenearainoko bidea egin zuten. Aurtiztarrekin eta iturendarrekin elkartu eta plazan besta koloretsu eta basatia lehertu zen, era guztietako moztorroekin. Hurrengo egunean alderantziz egin zuten, iturendarrek bisita itzuli zieten zubietarrei. Gaur egun, besta parekideak ospatzen dituztela azaldu du Loiartek, neska zein mutil berdin parte hartzen dute. Baina ez da beti hala izan eta Juli bera horren lekuko adierazgarria da.

Aita eta bi anaia zaharragoak joaldunak izaki, etxean jaso zuen ttiki-ttikitatik usadio zaharra. «Joarea ikusi eta ile guztiak puntan jartzen zaizkit», esan digu telefonoaren bestaldetik. Beti izan da horrela. Lineatik ere sumatzen zaio emozioa. 19 urte izanen zituen eta 1982a izanen zen bidea ireki zioten aita eta anaiekin batera lehenbizikoz joaldun gisa atera zenean. Bera zen neska bakarra.

BAT GEHIAGO

Familiaren babesa zuen. «Ez egin kasurik zurrumurruei. Joan eta jo. Zerbait esaten badizute, zuk niri esan», aholkatu zion aitak. Anaia bi eta hiru urte zaharragoak dira eta eurek ere animatu zuten. «Anaiek jarri ninduten han eta ondo. Ez zidan inork ‘utzi ttuntturru eta joareak eta zoaz etxera’ esan. Hori ez. Baina jende batzuen tartean zurrumurruak aditzen nituen, bizpahiru izanen ziren, baina ‘joan daitezela pikutara!’ pentsatzen nuen. Gero, urteen buruan, neska gehiago hasi

ziren ateratzen eta bat gehiago zirela ikusi zuten», agertu du.

«Aurten eta aitzineko urtean oroitzen naiz ze txirrinta nuen. ‘Benga, Juli, Iturenera joan behar dugu, bikote bat falta da’ esaten zidaten. ‘Ez zait inporta, falta ez bada ere nik joan behar dut’. ‘Bai, bai, etorri etorri’. Eta hala atera ginen». Batzuetan, itzuli osoa aguantatuko ez duen kezka sortu zaio, baina «nahiko ondo» moldatu da. «Gero, Ibuprofeno bat eta azukrea urarekin eta listo!».

Loiartek uste du ttikitatik izan duela amets hori. Aita eta anaien gibeletik han ibiltzen zen kinki

kanka. «Beti neukan hori: ‘Jo behar ditut, jo behar ditut’. Etxetik ikusten dugu. Alaba ere joalduna da».

AMA-ALABAK, BIKOTE

Ama-alabak bikote bezala atera izan dira. Amak dioenez, orain ez dago inongo arazorik emakumeek parte hartzeko. «Gizonek oso ondo hartzen dute. Nire anaiaren alabak ere jotzen ditu joareak eta asko animatzen dugu. Agian igande gauean afaltzen ari gara eta ‘bihar zer?’ beste animo batez esaten digute, eta guk nahi dugu... Orduan, ez da batere arazorik.

Orain neska eta mutilak elkarrekin ibiltzen gara, bat gehiago bezala».

Jaietan ere neska-mutilak denak batean ibiltzen dira. Inork ez du erraten ‘zu neska zara eta ez zara aterako’. Gauzak aldatu egin dira.

ELKARTEAN ERE BAI

Inauterietan larunbatetik asteazkenera arte gosari, bazkari eta afari, otordu guztiak arkupean egiteko aukera dago. «Elkarte moduko bat da eta gu sartu ginenean, lau neska, nik 17 urte nituela, lehenbizi ‘neskak ere hemen!’, ‘zuek ere sartu behar duzue orain?’, ‘zergatik?’ eta halakoak entzun genituen, baina hortik aitzinera oso ondo, urtero-urtero. Ni orain ez, baina lehengo lagunak joaten dira bazkaltzera eta besta egiteko neskekin edo mutilekin ez dago arazorik».

Joarea jotzeko, edo moztorroa janzteko, edo parte hartzeko ez da oztoporik. Loiarteren arabera, moztorrotzeaz edo joarea jotzeaz

gain, arkupeetan ere emakumeak egotea inportantea da, besta dena baita.

«Bertako otorduetan primeran egoten gara. Asteartean batek zirikatzen ‘ai, ze gaizki jo duzun!’, besteak ‘a ze gaupasa!’, hala ibiltzen gara hizketan. Nik agian galdetzen dut ea ongi jo ditudan eta ‘bai, bai, nahiko ongi’ erantzuten didate».

Zubietarrentzat inauteriak urteko egunik inportanteenak dira, batez ere asteartea. «Egun hori sekulakoa da guretzat! Nik Ama Birjinaren eguna eta herriko bestak kendu eta lau egunekoak ez, aste bateko inauteriak jarriko nituzke. Anaia ere hala esaten du. Udako jaiak desberdinak dira. Etxean lan gehiago egiten dugu, bat heldu dela, bestea heldu dela... Inauterietan, aldiz, larunbatean arkupeetara joaten gara eta otordu guztiak han ditugu asteazkenera arte, gero ordaintzen dugu eta zoragarri! Dena egina dugu».



Inauterietako prestaketak Zubietako arkupean, urtarrilaren 26an. Tartean, Juli Loiarte. Iñigo URIZ | ARGAZKI PRESS

ERRALDOIAK ETA BURUHANDIAK

Tailerrean eginiko objektu estatiko soilak,
dultzainaren soinupean bizia hartzen dutenak

 **JENDARTEA /** Aimar Etxeberria Korta

Hiru hamarkada luze daramate Garate anaiek erraldoiak eta buruhandiak egiten. Irunen duten tailerrean dituzten bitartean, ordea, plazara dantza egitera ateratzeko esperoan dauden objektu estatiko batzuk besterik ez dira. Aitor Aiestaran gaztearen jarduna da haiei bizia ematea, euren izateari zentzua ematea dultzainaren soinupean.


Hiru hamarkada baino gehiago daramatzate Garate anaiek –Xabier eta Benito– buruhandi eta erraldoi artean. 80ko hamarkadaren lehenetan sartu ziren mundu horretan, ofizio bezala baino, zaletasuntzat zuten munduan. Denbora-

rekin, ordea, afizioa ofizio bilakatzea lortu dute, akatsetatik ikasiz, euren jarduna garatzea eta sendotzea lortu baitute. Existitzen zen tradizio bati jarraipena ematen ari direla diote beraiek, garai batean, Gerra Zibilaren eta Frankismoaren ondorioz batez ere, galtzen joan zen tradizio bati, hain zuzen. «Erregistro historikoetara joz gero,

30 urte hauetan zehar, bakoitzak bere aldetik ogibide ezberdinak izan dituen arren, erraldoi eta buruhandietatik ez dira aldendu Xabier –ezkerrean– eta Benito –eskuinean– anaiek.
Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

XVII. mendera atzera egin behar dugu buruhandi eta erraldoien jatorria aurkitzeko», azaldu du Xabier Garatek. Gorpuzti egunaren kariatara agertzen dira buruhandi eta erraldoien lehenengo erreferentziak, baina konnotazio erlijiosoa izan dezaketean ustearen aurrean, adierazi du buruhandiek eta erraldoiek ez dituztela pertsonaia erlijiosoa irudikatzen. «Zorionez, garai modernoetara buelta eginda, Frankismoaren amaieraren ondoren herriak bere egin zituen erraldoi eta buruhandiak, eta pertsonaia herri-tarrak bilakatu ziren hauek», aldarrikatu du. Ofizio ugari irudikatzen zituzten pertsonaiak egiten hasi ziren, baina, horiez gain, pertsonaia mitologikoek ere indar handia dute mundu honetan. Euren diotenez, «gazteago eta axolagabeago» zirenean ekin zioten erraldoi eta buruhandiak





egiteari. «Garai gogorak ziren 80ko hamarkadan bizi izan genituenak, krisi sakonean bizi baikinen», azaldu dute. Garai gogorak izanagatik ere, mugituak ere baziren, zinez. Horrek, arriskuak parez pare izatea zekarren arren, ate asko irekitzeko aukera ematen zuen, eta horretan ziharduen kale antzerkiak, etorkizunari begira ate berriak irekitzen. Ate horiek aurkitzeari ekin zioten Garate anaiek ere, kale antzerkiaren eskutik.

«Kale antzerkian ziharduten taldeekin hasi ginen lanean, denboran zehar galtzen joan zen zaletasun edo ofizio batek utzitako zuloa estaltzen», azaldu dute. Pixkanaka, ordea, egiten zituzten lanak gustatzen hasi ziren herritarren artean, eta udaletxe askotatik eskaerak jasotzen hasi ziren. Irakasle edo tutorerik ordea, ez dute izan; akatsetatik ikasi dute, denborarekin. Prestakuntzari dagokionez, ez bata ez besteak, ez dute arte plastikoekin zerikusia duen ezer ikasi. «Umetatik nuen margotzeko zaletasuna, eta horri tiraka sartu nintzen mundu ho-

netan. Berezkoa dudan zerbait dela esan dezaket», azaldu du Xabier Garatek. Are gehiago, garai hartan, Arte Ederrak edo antzeko zerbait ikastea familia oneko pertsonentzat soilik zela gogoratzen du: «Baliagarria izango zen zerbait egin behar zenuen, eta gurea ezertarako balio ez zuen kontu bat zen». Horregatik dio eginez ikasi duen ofizioa dela berea, denboran zehar sortu zaizkion arazoei irtenbideak bilatuz ikasia.

DENBORAREKIN SENDOTZEN

Ofizio honetan daramatzaten urte guztien bilakaera nabarmena dela adierazi dute Garate anaiek. «Hasieran, udaletxe batek eskaera bat egiten zigun, erraldoi bikote bat, lau bat buruhandi... herriko jaietan ateratzeko. Edozein herritarri eskatu eta hor ateratzen ziren kalera, propina baten truke», azaldu dute. Gaur egun, aldiz, kontua profesionalizatzen ari dela uste dute. Soilik horretara dedikatzen diren konpartsak daude, eta horiek ere euren jarduna garatzen ari dira. «Finean, ikuski-

Telebistan agertzen diren pertsonaiak egitea ez da Garate anaiek gustuko duten jarduna. Nahiago dute berezitasunen bat duten pertsonaiak irudikatu. Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

Kale antzerkiaren eskutik sartu ziren erraldoi eta buruhandien munduan Garate anaiak, 80. hamarkadaren hasieran, zinez gogorak, baina mugituak, ziren garaietan

Lanean daramatzaten urte guzti hauetan egin dituzten lanen antzekoak eskatzen dizkiete normalean, eta elementu berriak txertatzen ahalegintzen dira, irudimenari bidea emanez

zun osoago bat eskaintzen da gaur egun duela 30 urtekoekin alderatuta». «Dantza asko garatu da, teknika ere asko hobetu da –jarraitu dute–, baita erraldoiak eramateko modua ere. Urteetan zehar sendotzen joan den mundua da erraldoi eta buruhandiena».

Eta horren adibide izan daitezke hainbat herritan, Azpeitian kasu, antolatzen diren erraldoien dantza lehiaketak. Azken urte hauetan, krisia dela eta, gisa horretako ekimenek behera egin badute ere, ziur dira datozen urteetan, egoerak hobera eginez gero, berreskuratzen joango direla, erraldoien elkarretaratzeak, esaterako. «Ikuskitan bikainak izan ohi dira, gaiten soinuarekin lagunduta. Konpartsen arteko ‘pikeak’ eta guzti izaten dira», dio Xabier Garatek.

IRUDIMENARI BIDEA LIBRE UTZI NAHIAN


Egun, batez ere udaletxeekin egiten dute lan Garate Anaiek, zuzenean nahiz zeharka. Elkarte edo konpartsa ezberdinek, erraldoi eta buruhandiak erosteko propio egiten dituzten diru bilketez gain, horiei eskatzen dizkiete eta diru laguntzak. Eskatzen dizkieten lanei erreparatuz gero, eurek urte hauetan zehar eginikoen antzekoak eskatzen dizkietela aitortu dute. «Lan berriren bat eskatzen digutenean gure beste lanen erreferentziekin etortzen zaizkigu gehiengotan, batean edo bestean ikusi duten gure lanen baten erreferentziarekin», azaldu dute. Beste herriren batean ikusitakoa eure-

nera eraman nahi duten udalak izan ohi dira gehienbat eskaerak egiten dizkietenak.

Baina, erreferentziak erreferentzia, irudimenari ere bere bidea egiten utzi behar zaiola uste dute Garate anaiek. «Nahiz eta gure aurreko lanen antzekoak eskatzera etortzen zaizkigun, beti ahalegintzen gara itxura berriak ematen. Batzuetan, herriko pertsonaia ezagun baten argazkiekin etortzen zaizkigu, eta geure erara moldatu behar izaten dugu. Ez dugu erretraturik egin nahi», diote. Irudimenarena, ordea, aurka etorri daitekeen zerbait dela onartu du Xabier Garatek: «Gerta daiteke zuk zerbait irudikatzea baina errealitatean nola egin ez asmatzea, edo alderantziz. Okerragoa da irudikatu duzun hori baino hobea den zerbait egitea!».

Eurak dira, ordea, kritikoenak egiten duten lanarekin. Zentzu horretan, azaldu du Xabier Garatek bere lan bat berak eginiko aurreikuspenen %60a iristen bada, bezeroek ontzat emango dutela. «Hortik aurrerako guztia ikaragarria izango litzateke, nahiz eta jakin %100era behin ere ez zarela iritsiko, irudimena errealitatea baino harago doalako», azaldu du.

Eta oker egongo ginateke uste izango bagenu lana udan soilik egiten dutela, herrietako jaien kariatara. Garate anaiek diote eurek urte guztian egiten dutela lan, entrega daten arabera urte sasoi batzuetan lan karga gehiago izaten badute ere. Batez ere, aitortzen dute udarari eta inauteriei begira izaten dutela lan



gehien. «Udari begira gertatzen dena da, jasotzen dugun enkar-gu bat egiteko gutxi gorabehera hilabete edo hilabete eta erdiko epea behar izaten dugunez, aurreko eskariekin lanak pilatzen zaizkigula», onartu du Xabier Garatek. Horregatik, askotan martxoan uztaileko edo abuzturako den lan batekin egoten direla adierazi du.

Badaude, ordea, zuhurragoak direnak ere, lanak epe luzera begira eskatzen dituztenak. «Adibidez, herriko jaiak irailean izan eta udaleko aurrekontuak onartu direla-eta urtarilean bertan eskariak egiten dituztenak ere badaude», azpimarratu du.

OBJEKTU ESTATIKOEI BIZIA EMAN BEHAR Garate anaiek, batez ere, barruko lana egiten dute. Objektu estatikoak egiten dituzte, primeran balio dezaketenak inauterietan taberna bat dekoratzeko. Baina erraldoi edo buruhandi batek duen funtzioa betetzeko hura eramango duen norbait behar da, halabeharrez. Batez ere, erraldioen kasuan uste dute dela garrantzitsua: «Geldirik dagoen erraldoi bat polita izan daiteke edo ez, baina dantzan ari denean hartzen du bere zentzu guztia», dio Xabier Garatek. «Dultzainen soinupean dantzan hastean bizia hartzen dute erraldoiek, txotxongilo bilakatzen dira», gaineratu du.

Horregatik, erraldoi eta buruhandiekin ibiltzen direnek «sekulako meritua» dutela uste du. Lan horretan dihardu Aitor Aiestaran 18 urteko hernaniar gazteak. Bere aitaren bidez –edo

aitari esker– sartu zen erraldioen munduan, hark urte batzuk lehenago jardun hori betetzen baitzuen.

Hernaniko Ostargi konpartsa-kide da bera, eta zuzeneko harremana mantentzen du Garate anaiekin. Esan daiteke, Garate anaiek tailer barruan egiten duten horri bizia ematea dela Aiestaran gaztearen jarduna. Euren konpartsa osatzen duten figura guztiak anaiek Irunen duten lantegian eginikoak dira, eta euren arteko harremana etengabeko «hartu-eman» gisa definitzen du gazteak. «Hartu eurek eginiko figurak erabiltzen ditugulako, baina eman ere egiten diegu, euren lanak hobetzeko aholkuak ematen dizkiegu eta», azaldu du.

Herri mugimenduaren parte den zerbait gisa ikusten du hernaniarrak konpartsa bat; laguntasun harremanean oinarritutako zerbait. «Lagun talde bat gara, izaera propioa eta garatzeko proiektu komun bat duena», adierazi du. Euren kasuan, hainbat udalekin hitzarmenak dituzte sinatuta. Modu horretan, ur-

tean zehar egin beharreko ikuskizun kopuru bat ezartzen zaie, baina eurek erabaki dezakete bestelako ekimen baten harira parte hartu nahi duten ala ez.

Aiestaranek herri folklorea eta herri mugimendua indartzeko asmoarekin hartzen du parte Ostargi konpartsan. «Herri honen nortasuna da jendea mugitzea, ikuskizunak antolatzea, nolabait jendea eta herria mobilizatzea», adierazi du. Zentzu horretan, azaldu du pisuarena –40kg inguru– dela erraldoi bat gainean daramanean duen sentsazio nagusia, baina, gaineratu du, jabetzen dela heldu eta ume guztiak begira dituela, irribarre batekin. «Erraldioen inguruan jendea mugitzen dela ikusten duzu, eta horrek indarra ematen dizu. Gainean daramazun pisu hori guztia arintzen laguntzen dizu.

HUTSUNEAK BETETZEN JARRAITZERA

Erraldoi eta buruhandien munduak, beraz, badu etorkizunik. Ziur dira Garate anaia, ekonomiak garatzera jotzen badu, ate berriak zabalduko zaizkiela,

Buruhandien kasuan, %100a da Irunen duten tailerrean eginikoa. Erraldoienean, aldiz, ikusgai dauden elementuak dira Garate anaiek egiten dituztenak.
Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

erraldoi eta buruhandiekin egiten duten lanaz gain, aterabide ugariko ofizioa baita euren: arte plastikoen mundua, dekorazioa... Aitortzen dute eskatu izan dizkietela gisa horretako lanak, baina ezin iritsita zirela eta, ezezkoak eman beharrean suertatu izan direla. Era berean, kalleko ikuskizunei begira asko egiten daitekeela uste dute.

Jakitun dira, ordea, euren lanak ez direla bereziki merkeak. «Gauzek bere balioa dute», diote. Baina, gaineratzen dute, eurentzat aberasgarriena lan bat entregatu ostean, eginiko lana eskertzea izaten dela. «Eskaera egin duenaren ideia ongi asmatzea da garrantzitsua, eta gehienetan lortzen dugu», adierazi du Xabier Garatek.

Horregatik, diote, egiten ari diren lan batek eurak asebetetzen ez dituen bitartean, ez dutela tailerretik ateratzen, ez dutela modu horretan entregatzen. «Askotan, lanean ari garen bitartean, egiten ari garen horrekin ez bagaude gustura, alde batera utzi eta berri bati ekiten diogu», nabarmendu du.

Soka, beraz, luzatuta dago eta nahi duenak hel diezaioke erraldoi eta buruhandien munduak jarraipena izan dezan. «Guk lan hau uzten dugunean hutsune bat geratuko da, mundu hau gustuko duen orok bete dezakeena. Gu, bere garaian, zegoen hutsune bat betetzearren sartu ginen mundu honetan, eta beste batzuei dagokie orain gure lanari jarraipena ematea», dio Xabier Garatek.

Aterabide ugariko ofiziotzat dute euren Garate anaiek eta, ekonomiak garatzera jotzen badu, ziur dira ate berriak zabalduko zaizkiela, arte plastikoen edo dekorazioaren munduan, kasu

Garate anaiek Irunen duten tailerrean egiten dituzten elementu horiei bizia ematea da Aitor Aiestaran gaztearen jarduna, eta Hernaniko Ostargi konpartsaren bidez egiten du



Gorka Zozaia
Kimikaria

Harro

Duela aste pare bat pasadizo bitxi bat izan nuen Eusko Jaurlaritzako Zuzenean zerbitzuan. Pisu aldaketa ia urtero egiten dugunok (prekariadoa?) pairatzen dugun helbide nahasmenaren ondorioz, Etxebideko zerrendatik bajan eman zidatela jakinarazi zidaten, eta antzinatasuna galduta, berriz inskribatu behar nintzela adierazi. Hala, gaztele-raz eman zidaten inprimakia betetzen hasi eta bigarren galdera erantzuteko zalantza egin nuen istant batez: “sexo” galdera eta bi aukera, H eta M. “Hombre” eta “mujer” artean aukeratu behar nuela iruditut zitzaidan hasieran, baina galdegaia “generoa” ordeztu, “sexua” izanik, pentsatu nuen “hembra” eta “macho”ren arabera erantzutea zela aproposagoa. Ez nuen denborarik orduan gaiari buelta asko emateko eta M-aren ondoan egin nuen gurutzea.

Maiz aritu naiz lerrootan sexuaz. Are, zientzia gai hartuta, epistemologia feminista zeharlerro konstantea da zutabe honetan. Izan genero edo identitate sexualagatik mespretxaturiko zientziariak gogora ekartzeko, izan gizon zuri klase altuko zientzia orohar arbuia- tzeko, biharko moduko aldarrikapen egunei ekarpena egin nahi izan diet txoko honetatik. Lehenago egin izan ez banu, “The imitation game” filmarekin ospea irabazi duen Alan Turing omen- duko nuke berriz ere. Eta orduko homofobia salatze baina gehiago, egungoa agerian jartzeko. Zenbat denbora da ba Europar justiziak homosexualei odola ematea debekatzea babestu duela? Dena oso zientifikoa, hori bai: GIB, garu- neko ezberdintasunak... ar/eme katego- riak bereizteko erabiltzen den intersexua (tarteko hori, arraroa, sal- buespen genetiko edota fenotipikoa) oraindik orain gaixotasun gisa trata- tzen da, eta mutilazio genitalekin kon- pondu!

Sexuarena, baina, gai konplexuegia da Prokustoren ohera egokitzeko. Konplexua definizio eremuan, biolo- giko zein sozialean, eta konplexua plano politikoan ere. Greziarrez jaso omen zituen pinguinoen jokaera sexual

arraroen gaineko apunteak George Murray Levick-ek, 1911n Scott-ek polora zu- zenduriko Terra Nova espedizioan hila- bete batzuk geldirik eman zituen. Adelaida pinguinoak behatu ei zituen: arren artean txortan, txitak bortxatzen, emeak sexualki jazarriz, isuri arte lurra- ren kontra igurtziz, baita hildakoak pe- netratuz ere! Ehun urte geroago, grezia- rrez apika ez, baina, ez da aise mintzatzen animalien sexuaz. Gure ar- tean sexua ekonomia (familia) ereduari egokitzeko definitzen dugun bezala, gai gara ikusmolde eta kategoria horiexek animaliei egozteko ere. Antropozentris- moa horren da ausarta! Bada, jarrera horri aurre eginez, eta, batez ere, ani- malien sexuan zakilari eman zaion zen- traltasuna arbuiaitzeko, liburu kaleratu berri du Jules Howard zoologo britainia- rrak. “Sexua Lurrean” (Sex on Earth) izenburupean, emeek eboluzioaren mo- tor gisa duten rola aldarrikatzen du, «munduak bagina historia gehiago be- har ditu». Ahateen adibidea argigarria omen da: atentzioa ahate arren zakile- an zentratu ohi da, bere luzatze abiadu- ra harrigarrian (1,6m segundoko!), bai- na ez emeen baginan, are harrigarri eta konplexuagoa dena. Espiral forma du,

zakilak bezala, baina kontrako zentzuan eta bihurturaz josia. Hala, kopulazioen herena bortxaketak izan arren, jartzen diren arrautzetatik soilik %3 dira bor- txatzaileenak. Hots, bere organu sexua- laren bidez, emeak hautatzen du zein esperuari sartzen utzi, eta zeini ez, eta ebolutiboki hori da interesgarriena.

Bonoboek, ika-mikak saihesteko, es- grima egiten dute beren zakilekin. Iguanak, estalketak denbora gutxia- go iraun eta arriskuak ekiditearren, masturbatu egiten dira aurretik. Ipur- targei ar batzuek nahiago dute farole- kin larrua jo. Tyrannosaurus rex-aren besotxoek estaltzean heltzeko balio zu- ten eta “Nemoren bila” egiatzko istorioa balitz, protagonista hermafrodita jaio- ko zen, ar bezala hazteko, eta aitarekin sexu harremanak izango lituzke.

Animalietan, gizakien artean bultzatu nahi zen jokaera sexualen bila jardun izan du zientziak heteropatriarkatua justifikatzeko, baina alderantziz, ani- malienak, gizakiok zapalkuntza sistema bat mantentzeko asmatu- riko norma eta moralak apurtzeko bide ematen duela dirudi. Ni neu, gero eta harroago nago animalia izateaz. •



Ahateen arteko kopulazioen herena bortxa bidez izan ohi da. GAUR8

{ koaderno } **Laura Mintegi**

Gazte parekideezale eta «sexyak»

Gazte gera gazte / ta ez gaude konforme / mundu garbiago bat / bizi nahi genduke, / gezurraren kontra / injustizirik ez, / gazte gera gazte / ez gaude konforme. / Nere abesti hau ez da politika, / justizia nahi det, egiak agertu / gizonak dauzkan eskubide horiek / kunplitu ditezen», abesten zuen Lourdes Iriondok 1968an.

Kanta abesten zuten gazte haien seme-alabak gazteak dira egun, eta kanta bera abestu lezakete koma bat aldatu gabe. Ez daude konforme, justizia nahi dute eta mundu garbiago bat aldarrikatzen dute. Baina gauzak ez dira ordukoak bezalakoak, eta etxetik jaso duten heziketak ez du zer ikusirik beren gurasoek 1968an jaso zutenarekin, ezta hurrik eman ere.

Aste honetan foro batean parte hartzeko aukera bikaina izan dut, dozena pare bat pertsonarekin batera. EHU-ko irakasle talde batek YouthLab izeneko ikerketa lan bat abiarazi du Portugal, Frantzia eta Eslovakiarekin lankidetzan, eta hausnarketa egiten ari dira gazteen aktibazioaz eta emantzipazioaz. Formula magikorik ez dagoe la alde z aurretik jakin arren, hobekuntzak bilatzen dituzte formazio formalean eta ez-formalean, gazteen promozioan, lan merkatuaren moldaketan, jakinda gazteei dagokiela erabakitzea zer nahi duten, eta helduek, gehienez, laguntzaile jokatu beharko luketela.

Eztabaidaren harira egiaztapen bat azaldu da ustekabea: gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari dagokionez, ez da aurrera egin gazteen artean. Areago, zenbait arlotan, atzera egin dutela pentsatzeko badaude zantzu nahikoak. Gazteek gogotsu ikusten duten “Mujeres y hombres y viceversa” telesaio espainiarra, esaterako, ezin izango zen emititu orain 20-25 urte, aldarrikapen feminista gorengo puntuan zegoen garaian. Zerbaitetan egin dugu huts. Ez dugu asmatu.

Nire ustez, akatsa izan da berdintasunaren printzipioa irakatsi nahi izan diegula, esan diegula emakumeek eta gizonezkoek eskubide berberak dituztela, eta eremu publikoan parekide agertu behar dutela, baina ez diegu transmititu nolakoak diren emakume eta gizon berrien ereduak, finean aurreko belaunaldikoek ere ez dakigula-

ko. Ez dugu eraiki feminitate berria, gure ardura izan delako emakume buruaskia eta autonomia aldarrikatzea, gizaki neutroa, eremu publikoan jarduteko homologagarria. Ez dugu asmatu osatzen maskulinitate berria, arduraz izan baita gizonezkoari osagai prepotentea eta lehia-korra gabetzea. Eta, jakina, gazteek sedukzioaren jokoaz jakin nahi dutenean, sexuen arteko erakargarritasunaz ereduak bilatzen dituztenean, estereotipo zaharkituenera jotzen dute, telesaio horrek erakusten dizkien emakume hiperfemeninoak eta mutil hipermuskulatuak nola erlazionatzen diren ikasteko. Gurasoek transmititu nahi izan diegun berdintasun aseptikoaz ez dago ligatzerik, ez da batere «sexya».

Kale egin dugu.

Kezkatu egiten nau gazteen etorkizunaz mintzatzean, ia haien lan arazoez eta falta zaien etxebizitzaz bakarrik arduratzen garela. Eskandalagarria iruditzen zaigu inge-

Gizonen eta emakumeen arteko harreman atsegingarriak izateko erremintarik gabe utzi ditugu, ez baitiegu erakutsi nolako gizon eta emakumeak izateko aspirazioa eduki dezaketen

niariak edo medikuak zerbitzari lana egiten egotea. Arduratzen gara ikustean familiek eta gizarteak egindako inbertsio ekonomikoa alferrik galtzen ari dela. Baina ez dugu pentsatzen zenbaterainoko frustrazioa sorrarazten dien bokazioa ez asebetetzeak edo bikote harremana egonkortzeko baliabiderik ez izateak.

Gizonen eta emakumeen arteko harreman atsegingarriak izateko erremintarik gabe utzi ditugu (ez bakarrik baliabide ekonomikorik gabe), ez baitiegu erakutsi nolako gizonak eta nolako emakumeak izateko aspirazioa eduki dezaketen: buruaskiak, autonomoak, bata bestearekin errespetutsuak; nork bere izaerari jarraiki, erakargarriak, femeninoak eta maskulinoak, botere-erlaziorik gabekoak eta sexyak.

Ez diegu irakatsi, helduok ere oraindik ez dugulako asmatu nola egiten den. •

GKO GALLERY

Euskal disenatzaile eta artisten lanak babestu eta plazaratzen dituen proiektua

 **KULTURA** / Oihane Larretxea de la Granja

Diziplina askotako euskal artisten eta disenatzaileen lanak biltzen ditu Tolosako alde zaharreko galeriak. Ausarta. Besteak ixten ari zirenean ireki zituen ateak, orain zortzi urte, bultzatzaileek erabat sinesten zutelako, eta dutelako, proiektuan. Heltzen zaizkien lanen kalitatea goraiatzen dute. Belaunaldi berrian «loraldia» dagoela diote.

Galeriara sartu bezain pronto begirada erotu egiten zaio bisitariari. Zentzu onenean. Zenbat kolore. Zenbat forma. Zenbat talentu. Antsietatea, ikusmira, ikusmina, hau, hura eta bestea zer eta norena den jakiteko, sinaduraren atzean nor ezkutatzen den deskubritzeko. Eta poza sentituko du bisitariak

sortzaileak gertukoak, oso gertukoak, direla jakitean. Euskal herritarrak. Bertan egina. Bertan sortua. Bertan saldua mundura zabaltzeko. Artea. Margoak, serigrafiak, inpresio digitalak... Moda. Soinekoak, galtzak, poltsak, bitxiak... Euskal artea eta diseinua. Eusko labela.

Lau paretetatik zintzilik artea eta moda daude, baina lau hormen artean pasioa arnasten da, amets bat eskuratzeko egiten

Galeriako hormak obraz beteta daude. Irudian, eskuinean, Xabier XTRMren lana eta Gora Team-ek irudikatutako segalariak, besteak beste. Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS



den lasterketaren indarra eta ilusioa.

Garikoitz C. Murua donostiarra eta Kizkitza Lasa leaburuarra zabaldu dizkigute GKO Gallery-ren ateak. Proiektuak lehen taupadak orain zortzi urte eman zituen, krisiaren lehen mehatxuak heldu zirenean, adituen iragarpenek gerturatzen ari ziren garaia oparoak izango ez zirela ziotenean.

Fundatzaileak Murua eta Kamilo Rodriguez txiletarra dira. Horregatik, proiektuak berak beste egoitza bat du Santiago de Txilen: GKO Factoria. Hala ere, bata ez du bestearen ibilbidea markatzen, sustraia bera izan arren, eta bakoitzak bere funtzioa betetzen du. Ozeanoaren beste aldean *street art* edo kaleko artea eta zientzia uztartzen dituzte, besteak beste, adibidez, kreatibitatearen bidez ingurumenarekiko kontzientziazioa lortzeko. Antza, antagonikoak diren bi esparruk bat egitea lortzen dute, arrakasta handiz gainera. «Oso oso potente» ari direla dio Muruak.

Tolosan berriz, proiektuaren aurpegia Murua eta Lasa dira, elkarren ondoan lan eta lan. Galerian arte erakusketak antolatzear gain, *concept store* bezala ezagutzen den formatua eskaintzen dute: autore jakin batzuek egindako pieza bakarrak daude eskuragarri.

SORTZAILEEN LORALDIA

Baina joan gaitezen polikiago; izan ere, aurrean dagoena ulertzeko, ezinbestekoa da atzean dagoena ezagutzea. Xedea eta esentzia euskal sortzaileei babesa ematea da, beren ibilbide artistikoan sostengua ematea. Hitz gutxitan: ezagutzera emateko plataforma izan nahi du autoreentzat GKO Galleryk. Judas Arrieta, Blami, Imanol Aizpuru, Elena Odriozola, Iñaki Epelde, Pili Aguado, Eli Garmendia, Xabier XTRM ... asko dira bertan lekua topatu dutenak.

Lasak kontaktzen duenez, urtean sei-zazpi erakusketa antolatzeko dituzte, bisitari asko erakarriz. Hala ere, eta jendeak denbora gehiago izan dezan horiez gozatzeko, hurrengo urtetik



Kizkitza Lasak eta Garikoitz C. Muruak kudeatu eta zuzenzen dute Tolosako GKO Gallery. Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

aurrera kopurua murriztuko dute ziur asko.

Aldi berean, artea eta moda dago salgai. Talentua «itzela» dela diote biek ala biek. «Uste dugu oso aro ona bizitzen ari garela; uneotan oso esplosiboa izaten ari da –dio Muruak–. Azken hiru urteotan jende asko animatu da halako proiektueta- ra, eta lehenagotik zeudenek esperientzia bereganatu dute orain. Lehen kosta egiten zitzaigun jendea bilatzea, eta orain, jendea da gugana datorrena».

Ezbairik gabe, euskal sortzaileek duten «kalitate handia» azpimarratzen dute. Euren ustez, badago belaunaldi bat, gaur egun 25 eta 35 urte artean dituzten gazteena, kanpoan gauza asko ikusi eta etxera bueltatzen ari dena hori guztia garatzeko. «Belaunaldi hori oso gogotsu dator, loraldia bizitzen

ari gara, eta gora doa», ohartarazten dute.

Hastapenetako helburua *street art* izenez ezagutzen den artisten lana bideratzea bazen ere, horrez gain, gaur egun artista heldu asko bertaratzen dira beren lan batzuk kudeatzeko, eta horrek ematen die galeria baten formatu formal. «Guri Euskal Herriko artisten etapa hau interesatzen zai-

gu, potentzialtasun hau, gu izan behar gara erreferente. Gure helburua loraldi honen ispilua izatea da, marka bat, identitate bat utzi nahi dugu historia horretan... eta pixkanaka lortzen ari garela uste dugu. Hori da satisfakziorik handiena», dio Muruak.

Garai zailak bizi izan dituztela ere ez dute ezkututzen. «Denak ixtear zeudenean ireki genuen

guk, baina ez pentsatuz negozioa egingo genuela, baizik edo 'orain edo sekula ez' zela uste genuelako», gogoratzen dute. «Hasi ginen eta ez genuen asmatu, eta oso gogorra izan zen, galera asko, irabazirik ez... hala ere, sinetsita ginen mantendu zitekeela», dio Lasak.

Lanaz eta esfortzuz, bide onetik doaz, urrats txikiak eginez, Lasak elkarrizketan behin baino gehiago aipatzen duen moduan, zeren eta jakin badakite galeriaren proiektua ez dela gauetik egunera lortzen. «Behar da, batetik, jendearen konfiantza; bestetik, artistena, eta, azkenik, bezeroena. Eta hori hogeita hamar urteko lana da», Muruaren iritziz, nahiz eta ohartu diren «profesionaltasun punttu hori ondo doala. Jendea gugana dator, gero eta lan serioagoa dugu, gero eta kalitate handiagoa du-

gu, bezero hobeak, bildumagile gehiago gerturatzen dira...».

«HAND MADE», BAINA BERTAKOA

Bi arduradunak ere bat datoz artistek eta diseinatzaileek euskaldunaren identitatea mantentze- ari eta aipatzeari ematen dioten balorea eta garrantzia azpimarratzean. «Euskaldunak gara, hemen egiten dugu eta munduari erakutsi nahi diogu egiten duguna» da, Muruaren iritziz, artistek jarraitzen duten filosofia.

«Nahiz eta produktuan ingelesez jarri 'hand made' (eskuz egina), askok 'Euskal Herrian egina' eransten dute. Ez dute helarazi nahi soilik marka bat egiten dutela eta kito, baizik eta egiten dute esanez: 'Ni Donostiakoa naiz, eta Donostian egina dago'. Eta hori balio erantsi bat da, ezbairik gabe. Eta bezeroak ere asko baloratzen du».

Hain justu bezeroez galdegiten diegu. Eta, Lasak dioenez, gero eta gehiago estimatzen dute, are gehiago, «gero eta argiago dugu jendea horren bila etortzen dela gugana». «Bezeroari produktua hemengoa dela esatean, eta pieza jakin batzuk besterik ez daudela azaltzean, beste modu batean ukitzen eta baloratzen dute produktua».

ARTEA SALTZEA BAINO GEHIAGO

Artistak ezagutzera eman eta artea eta diseinua saldu. Hori egiten du GKO Gallery-k, baina asmoa harago doala diote. «Gizartearen parte garen unetik eta bertatik hartzen dugun unetik», azaltzen dute, gizarteari bueltan zerbait eman nahi diote. «Proiektua guk sortu dugu, baina jendea behar dugu osatzeko, interakzioa interesatzen zaigu pertsonekin, gizartearekin, jendearekin. Sortzaileekin eta diseinatzaileekin lana egiten dugu, eta bide hori landuz, elkarbanatuz, sare bat sortzea da desiretako bat, gizarteari ekarpena egiteko. 'Ezagutzarekin kooperatu' deitzen diot nik», dio Muruak.

Marko horretan kokatzen da Tolosa eta inguruko herrietako elkarte eta eragileekin egiten dituzten elkarlanak eta proiektu boluntarioak.

«Euskal Herriko artisten etapa hau interesatzen zaigu eta, horrenbestez, gure helburua loraldi horren ispilu izatea da, identitate bat utzi nahi dugu historiaren zati honetan»

Eskuz eginda dagoela aipatzeaz gainera, sortzaileek bertan sortua dela eransten dute. Bezeroek gero eta gehiago estimatzen duten ezaugarria dela diote galeriakoek

XABIER ANUNTZIBAI «XTRM»

«Ni aurrera banoa GKO ere bai, eta alderantziz. Sareak onak dira»

Afiziotik ofizio egin du Xabier Anuntzibaik (Beasain, 1985). Arkitekto teknikoa da, baina txikitatik garatu duen sormenak aurretik eraman du gainerakoa. Arteagatik, sortzeagatik, betidanik izan duen «kiositateak», bere hitzetan, eraman zuen modu naturalean gaur egiten duen horretara. Eta Xabier XTRM izenez sinatzera. Hastapenetatik babestu du bere obra GKO Galleryk eta, orain, Baionan inauguratu berri du erakusketa. “Mon voyage” (Nire bidaia) uztailaren 25a arte egongo da ikusgai, Spacejunk aretoan.

Nola deskribatuko zenuke zure lana?
Bide ezberdinak ditut, eta kaleko lana eta estudiokoa aldi berean lantzen ditut. Kalean muralak, mural eskultorikoak egiten ditut, margoaz gain, egurra eta soka erabiliaz. Estudioan, bestalde, bereziki azken urteotan, metakrilatoa, egurra eta tartean pintura erabiliaz sortzen ditudan konposaketak. Bietan gustura nabil, beharra dut saltoka ibiltzeko.

Zu zara Xabier Anuntzibai baina artista bezala XTRM zara...
Bai, hala sinatzen dut. XTRM kalean margotzen hasi nintzenean hartu nuen, sinadura bat izatearren, nahiz eta, urteen poderioz, garrantzia kendu diodan horri. Hala ere, zentzu batean mantendu egin dut gogorarazten didalako nola hasi zen istorio hau guztia. Oroitzapen gisa, nostalgiagatik.

Eta nola hasi zen «hau guztia»?
Dizebi Beasainen ibiltzen zen margotzen, eta neuk ere margotzen nuen, baina etxean. Moduak, inguruak, kalean margotze horrek eman zidan atentzioa, eta haren pausoak jarraitzen hasi nintzen. Pausoak jarraitu eta jarraitu... eta gaur arte.

Obraren abiapuntutik, bukatzen duzun arte, buelta asko ematen dizkiozu?
Bai, aldatzen noa; izan ere, ideia itxi-itxita ez dut ia inoiz izaten. Batzuetan badut argiago zer nahi dudana, baina inprobisazio asko dago prozesuan, eta pintura bakarrik dagoenean soilik naiz azkarragoa. Material ezberdinak sartzen ditudanean, bueltak eman, probatu, saiatu... normalean ez dut lehenengoan ateratzen den bezala uzten.

Probak egitea gustatzen zait, nire estetikaren testuinguruan funtzionatzen duena lortu arte. Batzuetan kosta egiten zait puntu horretara iristea. Hala ere, ez banau asetzen, ez dut amaitutzat ematen.


Obrak segida baten barruan daude edo solteak dira?
Azken urteetan ez dut hainbeste estudioko lanik egin, izan ere, ez dut erakusketetan parte hartu. Baionarako bai; hangoek segida bat eskatu zidaten, obra berria sortzea. Eta horretan ibili naiz azken urte erdian, “Mon voyage” (Nire bidaia) sortzen, nire bidaia propioa islatzen duten obrak egiten. Horiak bai, ildo bat dute, eta batetik bestera salto egin daiteke haria jarraituz, formatu eta material aldaketak egon arren.

Gehiago erakutsi duzu Euskal Herrian edo atzerrian?
Denetarik. Atzerriari dagokionez, aukera izan dut Frantzia, Italia, Txilen nahiz Alemanian erakusteko.

Atzerrian badu inongo baliorik euskal artista izateak?
Oso argi ez dut. Nik gehiago saldu dut atzerrian Euskal Herrian baino, baina ez dakit zergatia. Kulturaliki herrialde batzuetan badago joera eskulana gehiago baloratzeko eta, horrenbestez, erraztasun handiagoa dago saltzeko. Etxean obrarik ez dut apenas saltzen, baina ez dut ere gehiegi erakusten, ez naiz horretaz arduratzen, nahiko axolagabea naiz zentzu horretan. Nire esperientziaren arabera, muralak hemen enkargatzen dizkirate eta estudiokoak atzerrian.

Euskal artisten artean badago sarerik sostengua emateko?
Nik dakidala ez. Jendea ezagutzen dut, baina bidaietatik, eta kasik kontaktu gehiago ditut European Euskal Herrian baino. Alde horretatik, jakitun naiz esfortzua egin behar dudala Euskal Herri mailan jende eta artista gehiago ezagutu eta sare lokalago bat sortzeko. Bidaiatzeko aukera izan dudanez, momentuz, edo orain arte behintzat, nire sarea europarra izan da.

GKO Gallery bezalako proiektuak



Xabier Anuntzibai, Tolosako tailerrean. Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

lagungarriak dira?
Zalantzarik gabe bai, euskal artistek presentzia handiagoa eduki dezaten bertan, etxean. Jendea barneratzen hasia da eta oso lagungarria da. Beraiei [GKO Galleryko arduradunak] dagokienez, euskal artistak eta euren lanak bultzatzen saiatzea oso eskertzekoa da. Nigan sinesten dute. Ni aurrera banoa beraiek ere, eta alderantziz. Sareak laguntzen gaituzte.

Eta erakunde publikoetatik laguntzak badaude? Babestuak sentitzen zarete?
Laguntzak izaten dira, baina haiek lortzeko borrokatu egin behar da, proiektua prestatu, aukeratua izan behar zara... ni ez naiz dinamika horretan sartu. Bestalde, duela urte asko Beasainen beste lagun batzuekin, Udala hasi zen musikarientzat lokalak jartzen, eta geuk lortu genuen geure lehen estudioa. Urteen poderioz, Tolosako jendearekin BOX.A Arte Elkarte sortu

genuen, ikusten genuelako behar bat bazegoela sortzaileek izan zezaten espazio bat bertan lanean aritzeko, elkartzeko, hitz egiteko... elkarte hori sortzearekin batera, Udalak espazioa lau urtez esleitu zigun. Oker ez banago, beste lau urtez luzatu digute. Horrek guztiak lan handia du atzetik: proiektu edo egitasmo serio bat aurkeztu, espazioa atondu, ekintzak antolatu... mugimendua sortu dugu, udalarentzat mesedegarria dena eta, aldi berean, guretzat.

Gogoeta, estetika, iritzia. Zer lortu nahi duzu zure lanekin?
Denetatik, estetika beti izaten dut kontuan. Gainera, norberak berea sortzen du. Hortik aurrera, hausnarketa pertsonalak edo zerbait zehatza kontatu nahi dudana, ideia abstraktuak izan daitezke... ez da ezer zehatza, baina pixka bat denetatik da, aldi berean.

LUR AZPIKO ABENTURAK



iRRITZIA:



Amaia
BALLESTEROS



Jagoba MANTEROLA | ARGAZKI PRESS

IKUSMIRA

EGIN SALTO, DANTZA ETA IRRI, BAINA SU INGURURA GEHIEGI GERTURATU GABE IBILI

Irudi bereziak utzi ohi dizkigu San Joan gauak. Suaren inguruan antolatzen den jai paganoak ur-
teko gaurik laburrenaren aurrean gaudela iragartzen digu. Baina askorako eman dezakeen gaua
da, San Joan jaiak ospatzen diren herrietan, batik bat. Suak urte osoan pilatutako estres, karga
eta neke guztiak erretzeko balio du, albo batera uzteko, errauts bilakatzeko. Baina suarekin jo-
lasteak beti dakar erretzeko arriskua, salto egin eta erortzekoa. Horregatik, ondo hautatu behar
da zer den erretzea nahi dugun hori, sutara jaurtitzea nahi dugun hori, eta zer den beste urtebe-
tez mantendu nahi dugun hori. Egin salto, dantza eta irri, baina su ingurura gehiegi gerturatu ga-
be ibili, beti dago eta erretzeko arriskua. Aimar Etxeberria Korta

Usain hori, udaren iragarlea

Maidar Iantzi Goienetxe

anetik etxera bidean, errepidean barna, nire arreta erakarri du base- rri batetik eta bertzetik ateratzen den keak. Imana bezala atxiki dira begiak suetan. Kristala jaitsi eta usain hori sartu da, istorioz kargatua, udaren iragar- lea. Auzoan jolasak, oihuak, hotsak, usain hori, bestarako gonbidapena.

Eguzkitan biluztu dugu gure azal zuria; krema kapa bat jarri diogu aurrena, ondo- tik, hondarrezko eta gatzezko bertze bat... Eta usain hori etorri zaigu, istorioz karga- tua, udaren iragarlea.

Ostatuan, joan den urteko jaietako gau eder haietako “gure txokoa” berreskuratu dugu; musika topera dago eta oihuka ari

gara, elkarrengana hurbilduz eta gure ar- nasak sentituz... Eta usain hori...

“Ligatzea ez da jazartzea, ezetza ezetz da” dioen kartela dugu aurrez aurre. Kan- pora nahi baino gehiago hurbiltzen zaizki- gun hats desatseginak, eskuluzeak eta be- girada zikinak. Ospa negar eragiten diguten “maitasunak”, nahi duguna jan- ten uzten ez digutenak, eta parranda hon- datzen diguten jelsiak. Utikan sarri ikus- ten ez ditugun arren hesitzen gaituzten kaiolak. Akabo txokoz aldatu beharra, ba- tzueta tabernaz ere bai, norbaitengandik eskapo.

Duela zazpi urteko Sanferminetan hil zuen Nagore Laffage Jose Diego Yllanese- k.

Erizaintza ikasten ari zen 20 urteko irun- darrak uko egin zion 28 urteko psikiatrare- kin sexu harremanak izateari, baina hark ez zuen ezezkorik onartu. Heldu den uztai- laren 7an, Astelehen Lilak elkartearen eki- menez, Iruñeko udaletxea morez argizta- tuko da, Nagore gaztea oroitzeko eta eraso sexisten kontrako jarrera agertzeko. Keinu hori kanpaina zabalago baten parte da, eta ekintza gehiago izanen dira hiriburuan, bertze hainbat herri eta hiritan bezala, ka- lea, gaua eta jaiak denonak direla aldarri- katzeko.

Horiek, eta udara, denonak dira; usai- nak, orde, norberarenak, eta bakoitzak aukeratzen ditu nahi dituenak. •

Jendarte inklusiboa; #kmk15

O raindik dar-dar batean daukagu sabel aldea duela astebete «... jende zoriontsua, herri libre ba- tean!» ezarriak urratzeraino kantatu genuenetik. Hain justu, gure es- ku dago ere herria inklusibo bilakatzea. Alegia, eskubide politikoez gain, sozialak ere zaintzea, eta herritar gisa dagozkigun eskubideetan eta aukera berdintasunean zutabetzea.

Horixe ulertu du Kilometroak2015ek, #KMK15, eta horretarako beharrezkoa de- la jendartearen eraldaketa sozial eta kul- tural sakona inklusiorantz. Itzela erron- ka. Ikastoletatik eta hezkuntzatik ere eraikitzen baita herria, inolako bazterke- rriarik gabekoa. Honela diote joan den os- tegunean Gipuzkoako hirurogeita hamar

enpresa eta erakunde ezagunekin batera aurkeztutako Dekalogoaren lehen bi puntuak: «Kontua ez da mendekotasun egoeran dauden pertsonak edo ‘arazoak dituzten horiek’ gizartean integratzea, baizik eta guztiok gaitasun ezberdinak ditugula eta guztiok osatutako jendarte inklusiboa eraiki behar dugula». «‘Arazo- ak dituzten horiek’ eta ‘arazorik ez dugu- non’ arteko dikotomia hautsi egin behar dugu. Hemen denok gaude mendekota- sun egoeran, era batean edo bestean. El- karmendekotasuna jendartearen beraren ezaugarri zabala da».

Eta, halako diagnosi argi batetik, hel- burura iristeko tresna nagusia sentsibili- zazioa eta pedagogia dira. Besteak beste, aurreiritziak gainditu, pertzepzio positi-


boez jantzi eta kontzientzia soziala har- tzeko. Horregatik dira hain garrantzi- tsuak bitartekariak. Bai erreferentetzat ditugun erakundeak, baina, batez ere, he- dabideak.

Herritarrok barneratuta ditugun pen- tsaerak eraldatzea bada gakoa, hamarka- dak beharko dira, baina zer da hori... eus- kaldunon historian zehar izan erronkei so, epe motzekoa.

Pentsa herritarrak berdinago egiten gaituen ariketa xume bat ez dela hain xumea, kaltzifikatutako jarrera okerrak ere aska ditzakeela. Dema zaila hartu du #KMK15ek, baina #KMK16 eta behar bes- te izango dira.

Animo eta bejondeiola #KMK15i! Usur- bilen, urriak 4. #U4U #uau! •

Xabier Mikel Errekondo



Ibon Larrinaga, txakurak ondoan dituela. Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS

infraganti IBON LARRINAGA

Futbolean aritu zela sufritutako lesio larri batek ireki zion boxearen mundurako atea Ibon Larrinagari, eta orain, profesionaletarako jauzia egiteko asmoa du. Gazte getxoztar honen profila ez da ring batean ukabilkadaka dabilen norbaitekin berehalakoan lotuko genukeena, kirol ibilbidea Zientzia Politikoetako ikasketekin uztartzen baitu.

Ibon Larrinagak ere ez zuen galdu Floyd Mayweather eta Manny Pacquiaoaren arteko boxeo borrokaldi sonatua. Askoren aburuz mendeko norgehiagoka izaki, ezin zuen bestela izan boxeolari batentzat.

Las Vegaseko hitzordu hura, Euskal Herriko boxearen osa-

sun egoera edota politika bera ere ekarri ditugu Ibon Larrinagarekin partekatu dugun ring berezi honetara. Eta ez, ez die gure galderei izkin egin.

Espainiako Txapelketatik itzuli berritan egin dugu hitzordua berarekin. Eta pozik dator Euskal Herritik joandako boxeolarien lortutako emaitzekin. Bere

kasuan, brontzea esku artean duela itzuli da etxera. Orotara, EAetik joan diren bi neska eta bost mutilek urrezko bi domina eskuratu dituzte.

24 urte dituen gazte honekin hizketan hasi orduko, atzera begira jarri gara, gure artean, orain artean behinik behin oihartzun handirik izan ez duen kirol horri nola eutsi zion jakiteko. Duela bost urte inguru eskegi zituen futboleko botak boxeo eskularruak janzteko. Umetan, sarri jatzoten den legez, ia oharkabeen hasi zen baloiari ostikadak josten. Eta, aitortu digunez, ez zen jokalaria txarra.

Orduan espero ez zezakeen arren, lesio larri batek aldaketa nabarmena ekarri zion bizitzara. Tibia eta peronea hautsi zituen, futbol zelaietatik hainbat hilabeterako urrunduz. Tarte horretan izan zuen aukera kirol berri batean lehen pausuak egiteko, gerora etorriko zena inolaz ere imajinatu gabe.

Erandioko gimnasio batean egin zituen boxeo munduan lehen kolpeak eta, tarte batean futbolarekin uztartu zuen arren, gogotik heldu zion kirol berriari eta etengabe joan da hobera egiten, jaso zein emandako kolpe bakoitzarekin hazten, ikasten. «Euskal Herrian eta, oro har, Estatu mailan futbola ia ohitura bat da umeentzat. Ni ere joan, joaten nintzen, baina ez ninduen betetzen».

Boxeoan, aldiz, askoz nabarmenago sentitzen du egunetik egunera hobia izatera bultzatzen zaituen har hori. Kirol berri horrek gauza asko eman baina beste asko eskatu dizkio Larrinagari, batez ere lehiaren munduan murgildu zenetik, duela hiruzpalau urte: astean sei egunez entrenatu behar izaten du, txapelketa garaian beti baskularen eta pisuaren gatibu, eskatzen duen diziplina maila handia...

Harekin batera, Asier anaia ere sartu da boxearen munduan eta, biek elkarrekin, aita ere zaletu bihurtu dute. Kirol honek pertsona gisa egunerokotasunean ere ordena eta diziplina gehiago izaten lagundu diela esaten digu Larrinagak eta, ho-

rrez gain, anaien arteko harremana askoz estuagoa dela.

Lehen borrokaldietako urduritasuna ere ondo gogoratzen du: «Oso oso urduri jartzen nintzen borrokaldien aurretik; egoera horietatik pasatzeak merezi zidan pentsatzera ere iristen nintzen». Hori bai, ringera igo eta borrokaldiari ekin bezain pronto aldatzen zitzaion aldartea eta, bai, jabetzen zen merezi zuela alde aurretik egindako lanak eta igarotako urduritasunak.

Urteen joan-etorriarekin boxearen beraren egoera aldatuz joan da. Euskal Herrian nabarmen igarri du aldaketa Larrinagak Zallako aurreneko hitzordu hartatik. Egun hartan, 200 bat lagun bildu ziren eta zaila zen, egia esan, ia edozein kiroldegitan borrokaldi bat ikusteko jende gehiago biltzea.

Azken lauzpabost urteotan gauzak asko aldatu dira, ordea. Gero eta borrokaldi gehiago antolatzen dira Euskal Herrian, eta herritarren emanak erakusten du jendartearen sona irabazten ari direla, bai boxeo, bai beste borroka-arte batzuk, hala nola, kick boxinga edo full contacta. «Gaur egun, La Casillan boxeatzeko dugunean 2.000 pertsona ere biltzen dira, eta gainerako borrokaldietara erraz joaten dira 500-600 lagun. Duela urte gutxi hau pentsaezina zen», aipatzen du, pozik.

Arrakasta horren atzean boxeo eskola kopuruaren gorakada dagoela uste du gazte getxoztar honek: «Gimnasio gehiago zabaltzen joan dira, eta jende gehiago hasi da boxeo ikasten. Ondorioz, boxeolari arrakastatsuak ere ateratu dira».

Kerman Lejarraga edo Andoni Gago bezalako boxeolarien lorpenei esker, kirol honek hedabideetarako jauzia egitea lortu duela –nahi baino txikiagoa, segur aski– eta horrek ere jende gehiago erakarri duelakoan da Ibon Larrinaga, ‘Larri Pura Vida’ ezizenarekin lehiatzen dena.

Horrekin batera, nabaritu du kirolak berak ere eboluzioa izan duela. Alegia, lehen pausoak ematen hasi zenean, boxeo askoz fisikoagoa zen, indarrean eta erresistentzian oinarritua-



«Larri Pura Vida» goitizena hartzen du Larrinagak boxeoa. Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS

goa. Orain, aldiz, kirolariak askoz prestatuago ikusten ditu eta borrokak teknikoagoak dira, boxeo estilo «politago» bat.

Herritarrek kontaktuzko kirolen inguruan izan ditzaketen aurreiritziez galdetu diogunean, ulertzen du askok kirol «biolentotzat» jotzea, lehiakideen artean dagoen kontaktu mailari erreparatuta hala delako, baina errealitatea bestelakoa dela argitzen du jarraian: «Futbolean edo beste kirol batzuetan jarrera biolentoagoak ikusten dira. Boxeolarien artean dagoen errespetua ez da beste jarduera batzuetan ikusten».

Bestalde, kirolean ere beste aldarrikapen batzuetarako lekua badagoela pentsatzen duen horietakoa da Larrinaga. Hain zuzen, sare sozialetan oihartzun handia izan zuen argazki bati buruz galdetzen diogunean –borrokaldi bat irabazita, «Libre» zioen kamiseta laranja soinean zuela atera zen ringera–, azal-

tzen digu bere aburuz kirola beste aldarrikapen batzuetarako bozgorailu ere izan daitekeela. Larrinagak ulertzen du maila altuko kirolariek presio handia dutela zentzu horretan, baina historiarako gelditu diren irudiak ere ikusi izan ditugula nabarmendu du, adibide gisa Iribarrek eta Kortabarriak artean debekatua zegoen ikurriña Atotxan atera zuteneko aldi hura aipatuta.

Kirolarekin lotura hain zuzena ez duten gaiak jorratzen hasita ezin genuen aukera pasatzen utzi, eta Zientzia Politikoe-tako ikaslea dela jakinik, bere ikuspuntua jakin nahi izan dugu. «Non jaso eta ematen dira

Boxeo profesionalera salto egiteko asmoa du Larrinagak, nahiz eta zail dagoen horretaz bizitzea. «Pozik bizi naiz boxeoa nire bizitzan egotearekin. Horrek betetzen nau».

Kirola bestelako aldarrikapenetarako bozgorailu izan daitekeela uste du Larrinagak, nahiz jakin maila altuko kirolariengan presio handia dagoela, batik bat medioetan.

‘ostia’ gehiago? Ring batean ala egungo agertoki politikoan?», galdetu diogu, eta barrea izan du lehen erantzuna. «Garai hauetan –azaltzen digu–, askoz gehiago medioetan eta panorama politikoan. Boxeoan horre-

tarako igo-tzen gara ring batera, baina kalean egune-ro ‘ostia’ nahi-kotxo ikusten ari gara, egoera ez delako batere samurra: krisia, etxe kalera-tzeak, atxilotetak, langabezia...».

Indar politiko berrien

agerpena begi onekin ikusten du Larrinagak, batez ere Estatu mailan «haize freskoa» ekar lezakitelako. Hala ere, esan digu pasa berri diren hauteskundeek

erakutsi dutela –bera EH Bilduko zerrendako kide izan da Getxon– jendeari irudi lezakeena baino gehiago kostatzen zaiola aldaketa politikoaren alde egitea. Hautetsontzietara jotzen denean, kalean ematen duena baino jarrera kontserbadoreagoa hartzen dute herritarrek, nonbait.

Eta nola ikusten du etorkizuna Larrinagak? Jada 60 borrokaldi baino gehiago egin ditu eta laster amateur mailatik profesionaletarako jauzia egiteko asmotan da. Badaki bidea ez dela erraza izango, hemen oso zaila delako boxeoz bizitzea. Baina horrek ez dio axola, eta aitorpen argi horrekin eman dio amaiera elkarrizketari: «Gustatuko litzaidake boxeoa segitzea, baina ez da nire asmoa horretaz bizitzea. Boxeoz bizi banaiteke, ondo, baina pozik bizi naiz boxeoa nire bizitzan egotearekin» •

@GARA_rpascual



Iratxe Esnaola
Informatika ingeniaria

Gaztetxoak, smartphoneak eta arauak

Gurasoekin smartphoneen gaia lantzen dudanean, barita magiko bat eskatuko balidate bezala sentitzen naiz sarri. Barita magiko bat, kasu askotan, smartphonea pare bat urte lehenago eman zietenean. Eta barita magiko bat, gaztetxo bakoitza mundu bat denean, baita guraso bakoitza ere. Eta zer esanik ez gaztetxoaren eta gurasoaren arteko harremana. Zaila da, hortaz, saio horietan eskatzen zaizkidan gomendio guztien aurrean erantzuna eskura izatea, ezagutzen dudak bakarra planteatzen didaten testuingurua edo gertakizuna baita, eta ez gaztetxoa, ez gurasoa, ezta euren arteko harremana zein klabetan eraikita dagoen ere.

Edozein kasutan, badira, modu orokor batean, smartphonea ematen zaien unean negoziatu daitezkeen arau batzuk. Baina oso garrantzitsua da une horretan bertan adostea arau horiek, ez behintzat ondoren. Arauek bi helburu izan behar dituzte nire ustez: erabiltzaile arduratsua izatea, eta smartphonearekiko menpekotasuna saihestea. Eta arauen gehiengo handi batek erabiltzaile arduratsua izateari erantzuten dio, eta era berean, menpeko ez izatea arduratsua izatearen eskutik dator.

Batetik, smartphonearen jabetzak, jabetzaren terminoetan arautu behar bada, hasiera batean gurasoena izan behar luke, eta nolabait maileguan ematen zaio gaztetxoari. Horregatik, smartphonearen SIM txartelaren gakoa eta pantaila desblokeatzeko gakoa edo patroia gurasoek ezagutu egin behar dute, eta aldatzen bada, aldatetaren berri izan.

Era berean, smartphonean instalatzen diren aplikazio guztien berri izan behar du gurasoak, instalatu aurretik, noski. Horretarako, konfiantza badago, gaztetxoak aplikazioa instalatzeko nahia adieraztearekin nahikoa da. Funtzionamendu hori egokia ez bada, badira aplikazioen erabilera gako bidez kontrolatzen duten aplikazioak, SmartAppLock kasu. Smartphonearen gaineko kontrolak gurasoena izan behar du, bere erabileraren nondik norako guztien berri izanez. Hasiera batean, gaztetxoaren intimitatea urratzeko asmorik gabe, elkarrizketak eta edukiak begiratzeko aukera izan beharko luke gurasoak.

Smartphoneak komunikazio kanal asko irekitzen ditu. Baina ez da aurrez aurre esateko gai ez garena adierazteko bidea. Azkarragoa agian bai, baina ez du ordezkioa izan behar. Mina egiteko ere ez da erabili behar, ez zuzenean, ez zeharka. Enpatia ezinbestekoa da, smartphonearen erabileran ere. Ez lituzkete birbidali behar jasotzen dituzten zurrumurru eta edukiak, beste norbaitentzat iraingarriak badira.

Smartphoneak kamera izango du. Modu erraz batean atera eta igo ahalko ditu argazki eta bideoak. Baina argazkiak bidali edo sare sozialetan partekatuko baditu, hausnar dezala partekatu aurretik. Ez dago bizitza osoa Interneten dokumentatzeko beharrik. Bizitzaren esperientziak bizi egin behar dira eta memorian erregistratzen dira, eta gerora gogoratzeak egingo ditu gero eta handiago. Hausnar dezala, partekatzen duen argazki ororen gaineko kontrola galdu egingo baitu, partekatu duen unean bertan. Pribatutasun totalik ez du inork, baina zaintzea eta gehiago ez galtzea bakoitzari dagokio.

Pribatutasunaren haritik tiraka, smartphonearen zenbakia informazio pribatu gisa ulertu behar da. Ez zaio edonori eman behar. Eta ez da sare sozialetan argitaratu behar. Il

ldo berean, smartponea ezagunekin komunikatzeko tresna bat da, komunikazio kanala edozein aplikazio dela ere. Eta gurasoen dei eta mezuei beti erantzun behar zaie.

Gaztetxoa erabiltzaile arduratsua bilakatzeko hainbat arau izan daitezke aurreko horiek guztiak.

Baina arduratsua izatea, menpekotasunik ez izatea ere bada. Eskolara ez eramatea hobe, guraso edo arduradunekin komunikatzeko beharrik ez badu behintzat. Iluntzean edo adostutako orduan, smartphonea gurasoen eskuetan geratuko da, hurrengo egunera arte.

Funtsean, unean uneko eta lekuan lekuko esperientziak bizi eta gertakari horiekiko interesa eta jakinmina izateak, biziago sentiaraziko du. Smartphone gabe ateratzen ikastea ere ez legoke gaizki, eta erabakiarekin lasai egoten jakitea. Smartphoneak bizitza eman eta kendu egiten baitigu uneoro. Helduoi ere. •




Badira smartphonea ematen zaienean negoziatu daitezkeen arauak.

GAUR8

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



JUAN RAFAEL ALDAY. KUTXATEKA. ALDAY FUNTSA

AMARA ZAHARRA HONDARTZA ZENEKOA

XIX. mende amaiera. Donostia, handitzen ari zen. 1863. urtean harresiak bota zituzten, eta urtebete geroago, Paris-Madril ferrokarrila iritsi zen. Hiriko espazioa padurari koska egiten ari zitzaion, eta eraikuntza berriek hiri berria zekarten. 1895. urtean Amarako zabalgunea egiteko proposamena egin zitzaion Udalarai, eta urte horretan bertan jarri zen martxan trena Easo plaza-tik. Irudian, haur batzuk hondarretan jolasean, gaur egun Amara Zaharra auzoa dagoen tokian. Atzean San Bartolome muinoa ikus daiteke. Argazki hau Juan Rafael Aldayk atera zuen, lanbidez arkitektoa eta zaletasunez argazkilaria zenak. 1909. urtetik aurrera Donostiako Udalean arkitekto lanetan aritu zen, eta hark eginak dira, esaterako, Kontxako baranda, Easo kaleko udal eraikuntza, kontserbatorioa, erlojuak eta Bretxako arrandegia.

1,5€
ZURE BIDAIA ALDIZKARIA
EUSKARA HUTSEAN



DAGOENeko

ZURE KIOSKOAN SALGAI



7haizetara
BIDAIA ALDIZKARIA



Harpidetu • 11 ale 15€ urtean • www.zazpihaizetara.com

